



EBAZPENA, EUSKO JAURLARITZAKO INGURUMEN-ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIARENA, DONOSTIAKO (GIPUZKOA) HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMENARI BURUZKO DOKUMENTUA FORMULATZEN DUENA.

AURREKARIAK

2024ko urriaren 2an, Donostiako Udalak eskabidea aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza zenari, Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egin zezan, bat etorrita Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta Planen eta programen ingurumen-ebaluazioaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren V. eranskinean dakarren formularioa.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientean dago jasota. Era berean, Donostiako Udalari izapidearen hasieraren berri eman zitzaion.

Halaber, espedientean jasotako dokumentuak eskuragarri egon ziren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean, interesdun orok ingurumenaren arloan egokitzen jotzen zituen oharra egin ahal izateko.

Txostenak jasotzeko indarrean dagoen legerian ezarritako epea bukatuta eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan xedatutakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean eragin nabarmenak izateko arriskua dakartenean; horretarako, maila handiko ingurumen-babesa bermatuko da, garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaie administrazio publiko batek abian jarritako plan eta programei, bai eta haien aldaketei eta berrikuspenei ere (II.A eranskinean zerrendatuak), legezko edo erregelamenduzko edota Gobernu Kontseiluaren xedapen batek beharturik prestatu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuek etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute eta eranskin horren 6. apartatuan jasotako arloei buruzkoak badira.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikulua xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organismoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Bestalde, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 18.1 artikulua xedatzen du irismen-dokumentua hasteko eskabideari zer dokumentu erantsi behar zaizkion, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Lege horri aurka egiten ez dioten alderdietan, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaltzen eta osatzen du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharrekoaren edukia.

Azkenik, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, baita 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentzia-dokumentuaren edukiaren ingurukoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiaren ingurukoak, hurrenez hurren.

Orain arte azaldutako guztiari jarraikiz, espedientean jasotako txostenak aztertuta eta aplikatu beharreko legeak eta arauak ikusita (hau da, 10/2021 Lege Orokorra, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen; 410/2024 Dekretua, abenduaren 3koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1koa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarena; eta aplikatzekoak diren gainerako arauak), honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (aurrerantzean, Plana edo HAPO) ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondorioetarako soilik, honako baldintza hauen arabera:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena.

Donostiako udalerrian indarrean dagoen plangintza orokorra bat dator 2010eko ekainaren 25eko osoko bilkuraren erabaki bidez behin betiko onartutako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrekin (2010eko azaroaren 19ko GAO, 222. zk.) eta haren aldaketa puntualekin.

Planaren aurrerapenak garrantzi handieneko gaietarako helburuak eta irizpideak zehazten ditu, hala nola espazio libreetarako, etxebizitzarako, ekonomia-jardueretarako (EJ), mugikortasunerako eta garraiorako, lurzoru urbanizaezinerako eta naturagunerako, eta ingurumen-erregulaziorako. Era berean, sei ildo estrategiko ezartzen dira, eta hain zuzen ildo estrategiko horietan oinarrituz garatzen dira Planaren zehaztapenak: barne-hazkundera eta hiri-birkalkifikazioa; etxebizitza eskuragarria eta ekonomia-jarduera dibertsifikatua; interkonexio berdea; ekipamenduen eta zerbitzuen eskaintza hobetzea; ondarea Planean integratzea eta mugikortasun osasungarria sustatzea.

Planean honako proposamen hauek bereizten dira:

A.- Bizitegi-erabilera - Bizitegietarako Plangintza Unitateak (BPU)

HAPO berrian aurreikusitako bizitegi-erakundeentzako plangintza-unitateek 3.307.559 m²-ko (331 ha) okupazio-azalera dute. Bizitegi-proposamena eta eremukako etxebizitza-banaketa honako irizpide hauei lotuta daude:

- Urbanizazio berriko jarduketak: 9.090 etxebizitza
- Birgaitzeko, berroneratzeko edo birdentsifikatzeko jarduketak: 2.353 etxebizitza
- Zuzkidura-jarduketak: 595 etxebizitza

Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, guztira, 12.038 etxebizitza berri inguru planteatzen dira (gutxienez %53,46 etxebizitza babestuak izango dira). Hala ere, urbanizazio berriko jarduketetan zenbatetsitako etxebizitza kopurua LAGen metodologiaren arabera zenbatetsitako kopurua baino txikiagoa izango da.

Aurrerapenean, 29 BPU proposamen hauek jasotzen dira:

Aiete:

- BPU-AI-01 Munto: «Villa Ereski» lurzatiari dagokio. 4.960 m²-ko azalera du (bizitegi-erakigarritasuna: 6.417 m² sabai) eta 64 etxebizitza planteatu dira, 7 tasatuak (ET) eta 57 libreak (EL).
- BPU-AI-02 Errondogaña (II): Errondo gainean dago, Aiete auzoan, Anoeta kirol-hiritik gertu. 30.557 m²-ko azalera du (bizitegi-erakigarritasuna: 11.990 m² sabai) eta 99 etxebizitza libre proposatzen dira.

Altza:

- BPU-AL-01 Aduritz-Akular: 792.613 m²-ko azalera duen sektorea da (bizitegiak: 315.000 m² sabai; EJ: 92.200 m² sabai), eta 3.000 etxebizitza planteatzen dira (2.255 EB; 745 EL).
- BPU-AL-02 Oletako sakona: eremuak Pasaia badiarekin muga egiten du iparraldean, eta Altza auzoarekin hegoaldean. Guztira, 77.600 m² ditu (bizitegiak: 16.000 m² sabai; EJ: 2.000 m² sabai), eta 150 etxebizitza proposatzen dira (61 EB; 89 EL).
- BPU-AL-03 Errotetazpikoa: Harria parkearen eta Altzako anbulatorioaren artean dago. Hartzen duen azalera 12.900 m²-koa da (bizitegiak: 6.500 m² sabai; EJ: 1.600 m² sabai), eta 60 etxebizitza planteatzen dira (25 BOE; 35 EL).
- BPU-AL-04 Txingurri: gaur egun lantegiek eta industria-erakundeek okupatzen dute, eta Altza auzoaren mendebaldeko muturrean dago. 34.323 m²-ko azalera du (bizitegiak: 11.800 m² sabai; EJ: 12.400 m² sabai), eta 110 etxebizitza aurreikusten dira (68 EB; 42 EL).
- BPU-AL-05 Jolastokieta: eremua Herrera pasealekuak, Ermita bideak eta Txirrita Bertsolariaren kaleak mugatzen dute. 22.300 m²-ko azalera du (bizitegiak: 36.500 m² sabai; EJ: 2.787 m² sabai), eta 456 etxebizitza planteatzen dira (91 BOE; 91 ET; 274 EL).
- BPU-AL-06 Esnabide: eremua Altza auzoaren ekialdeko muturrean dago, garatu gabe dagoen lurzoru batean, eta Errenteriarekin muga egiten du. Guztira, 51.110 m² ditu (bizitegiak: 21.504 m² sabai; EJ: 896 m² sabai), eta 249 etxebizitza aurreikusten dira (173 BOE; 76 ET; 0 EL).
- BPU-AL-07 Alfe: aurreko eremuaren hegoaldean dago, eta eremu horretan Errenteriako eta Donostiako udal-plangintzak bateragarri egitea proposatzen da. Horretarako, 4.000 m²-ko gutxienezko espazio librea proposatzen da iparraldean. Eremuaren azalera osoa 10.619 m²-koa da (bizitegiak: 4.600 m² sabai), eta 40 etxebizitza planteatzen dira (8 EB; 8 ET; 24 EL).

Amara Berri:

- BPU-AM-01 Easo-Amara: lurzoru hau libre geratuko da Donostialdeko trenbide-saihesbidea Amaran martxan jartzen denean. Easo plazaren eta Familia Santuaren Parrokiaren artean dago.

Eremuak 76.010 m²-ko azalera du (bizitegiak: 50.745 m² sabai), eta 450 etxebizitza planteatzen dira (200 EB; 250 EL).

Antiguo-Ondarreta:

- BPU-AO-01 Txapeldegiberri: bide berri bat aurreikusten da, Igeldo pasealekua eta Marbil bidea lotuko dituen eta mendi-hegalean bizitegi-eraikin berriak ezartzea ahalbidetuko duena. Aurreikusitako azalera 12.360 m²-koa da (bizitegiak: 3.081 m² sabai), eta 25 etxebizitza aurreikusten dira (0 EB; 0 ET; 25 EL).

Añorga:

- BPU-AÑ-01 Añorgako lotunea: Añorga Txiki auzoaren eta Infernuko etorkizuneko bizitegi-eremuaren artean dago. GI-20 errepidearen Añorgako lotunea sinplifikatu ondoren libre geratu den lurzorua da. Eremuak 153.000 m²-ko azalera du (bizitegiak: 54.500 m² sabai; EJ: 53.500 m² sabai), eta 490 etxebizitza aurreikusten dira (178 EB; 312 EL).
- BPU-AÑ-02 Añorgako Geltokia: Añorga Txiki auzoan dago, errepidearen eta Euskotrenen bidearen artean. Eremuak 39.180 m²-ko azalera du (bizitegiak: 25.000 m² sabai; EJ: 2.500 m² sabai) eta 238 etxebizitza aurreikusten dira (48 BOE; 48 ET; 142 EL).

Egia:

- BPU-EG-01 Aldakoenea: Mandasko dukearen pasealekuko bizitegi-eraikinak, Presentación de María Ikastetxea eta industria-pabiloiak barne hartzen ditu. Eremuak 34.803 m²-ko azalera du (bizitegiak: 15.073 m² sabai; EJ: 9.051 m² sabai), eta 150 etxebizitza aurreikusten dira (29 BOE; 28 ET; 93 EL).
- BPU-EG-02 Mundaitz: eremu hau «EG.03 Tabakalera» hirigintza-eremurako indarrean dagoen HAPOk proposatutako mugen barruan dago. Tabakalera komunitate-ekipamendu gisa finkatzea aurreikusten da, eta Mundaitz bideko eraikin-multzoa eraldatzea, ahal dela, bizitegi-eraikinekin. Eremuak 13.316 m²-ko azalera du (bizitegiak: 18.800 m² sabai; EJ: 7.200 m² sabai), eta 188 etxebizitza berri planteatzen dira (75 EB; 113 EL).

GI-20 errepideko korridorea:

- BPU-GI-20-01 GI-20: GI-20 errepideko korridorea eraldatzea proposatzen da, Illunbetik Herrerako lotunea igaro arte, baita Pasaiaiko porturako sarbidea ere. Lau azpiero ditu (Anoeta, Loiola, Intxaurren eta Herrera). Eremuaren azalera osoa 738.000 m²-koa da. Ez dira eraikigarritasuna eta etxebizitza kopurua zehazten.
- BPU-GI-20-02 Erribera: Loiolako GI-20 errepidera sartzeko lotuneak hartzen dituen lurzoruetan garatzen da. Eremuaren azalera 306.300 m²-koa da (bizitegiak: 74.000 m² sabai; EJ: 9.800 m² sabai) eta 700 etxebizitza aurreikusten dira (280 EB; 420 EL).
- BPU-GI-20-03 Intxaurren: GI-20 errepidearen zatiari dagokio, Marrutxipiko tunelen irteeratik Herrerako lotunearen hasieraraino. Eremuak 180.000 m²-ko azalera du (bizitegiak: 116.850 m² sabai; EJ: 17.300 m² sabai), eta, guztira, 1.255 etxebizitza planteatzen dira (753 EB; 502 EL).

Ibaeta:

- BPU-IB-01 Zubiberri (El infierno): eremu hau Tolosa hiribidearen eta GI-20 errepidearen artean dago. Guztira, 53.917 m² ditu (bizitegiak: 46.025 m² sabai; EJ: 1.845 m² sabai) eta 540 etxebizitza aurreikusten dira (153 EB; 135 ET; 270 EL).

- BPU-IB-02 Diario Vasco: *El Diario Vasco* egunkariaren instalazioak dira. Eremuak 10.605 m²-ko azalera du (bizitegiak: 21.000 m² sabai; EJ: 600 m² sabai), eta 210 etxebizitza aurreikusten dira (42 EB; 42 ET; 126 EL).
- BPU-IB-03 Illarra: Igarako goiko aldean dago. Guztira, 103.671 m² ditu (bizitegiak: 40.087 m² sabai), eta 385 etxebizitza planteatzen dira (119 EB; 46 ET; 220 EL).

Loiola:

- BPU-LO-01 Urdintzu (Loiolako Kuartelak): eremuak 171.024 m²-ko azalera du (bizitegiak: 140.612 m² sabai; EJ: 7.932 m² sabai), eta, guztira, 1.400 etxebizitza aurreikusten dira (560 EB; 840 EL).
- BPU-LO-02 Loiolako Lorategi Hiria: Urumea ibaiaren, Euskotrenen linearen, Donostiako saihebidetaren eta Loiolako zeharbidetaren artean dago. Eremuak 70.647 m²-ko azalera du (bizitegiak: 24.800 m² sabai; EJ: 6.000 m² sabai), eta 232 etxebizitza aurreikusten dira (58 BOE; 30 ET; 144 EL).

Martutene:

- BPU-MA-01 Antzieta-Villa Belén: Txomiñenea eta Portutxo artean dago, Urumea ibaiaren ezker aldean, eta bide-azpiegiturak eta pabiloiak ditu batik bat. Mugatutako eremuak 87.200 m²-ko azalera du (bizitegiak: 73.000 m² sabai; EJ: 8.000 m² sabai), eta 700 etxebizitza planteatzen dira (280 EB; 420 EL).
- BPU-MA-02 Sarroeta-Martuteneko pasealekua: Martutene auzoko hiriguneak bitan banatzen duen sektoreak 143.600 m²-ko azalera du (bizitegiak: 53.800 m² sabai; EJ: 4.600 m² sabai). Guztira, 550 etxebizitza garatzea planteatzen da (220 EB; 330 EL).
- BPU-MA-03 Txomiñenea (II): eremuak Martuteneko espetxeak hartzen dituen lurzorua biltzen ditu. Guztira, 37.210 m² ditu (bizitegiak: 31.129 m² sabai; EJ: 3.214 m² sabai), eta 294 etxebizitza planteatzen dira (147 BOE; 75 ET; 72 EL).
- BPU-MA-04 Apostolutza: Urumearen ibarrean urbanizatutako eremua da. 12.458 m²-ko azalera du (bizitegiak: 4.000 m² sabai; EJ: 5.000 m² sabai), eta, guztira, 40 etxebizitza aurreikusten dira (8 BOE; 8 ET; 24 EL).
- BPU-MA-05 Trinketea: Tranbia kalearen eta Martutene ibilbidearen artean dago, eta lorategi-hiri txiki bat du Martutene ibilbidearen, Artolategi kalearen eta Urumea ibaiaren ertzearen artean. Eremuaren azalera osoa 27.200 m²-koa da (bizitegiak: 9.456 m² sabai; EJ: 1.850 m² sabai), eta 100 etxebizitza berri planteatzen dira (30 BOE; 0 ET; 70 EL).

Zubieta:

- BPU-ZU-01 Tellerialde: hipodromoaren iparraldean dago, eta bizitegi-erabileratik sistema orokorrera aldatzea planteatzen da. Hori egitea desgokitzat jotzen da, eta, gainera, Realaren hockey-zelaia instalatzeko hitzarmen bat dago. Eremuaren azalera osoa 18.780 m²-koa da.

B.- Ekonomia-jardueren erabilera - Jardueretarako Plangintza Unitateak (JPU)

Ekonomia-jardueren plangintza-unitateek 2.402.129 m²-ko (240 ha) azalera dute.

Ekonomia-jardueren dagokienez, honako ideia hauek jasotzen dira, estrategikoak eta proiektuzkoak:

- Bizitegi-hiria ekoizpen-hiria ere bada, eta, beraz, Planak beheko solairuko ekonomia-jarduerak babestearen alde egiten du.
- Ekonomia-jardueretarako lurzoru berriaren kalifikazioa ez da proiektuak jarduera horietarako proposatzen duenaren aldagai nagusia.
- Indarrean dagoen planaren eredia onartu da.
- Ezarpen berrien kasuan, egungo hiri-ehuna erabiltzea proposatzen da, hots, hiri-bilbean dagoeneko urbanizatuta dauden lurzoruak aprobetxatzea.

Ekonomia-jardueran espezializatutako espazioei dagokienez, proposamena hainbat estrategiatan egituratzen da:

- Antolamendua izapidetze-prozesuan duten lurzoruak barnean hartzea.
- Ekonomia-jarduerarako eremu berri bat aurreikustea Herrerako bide-sareko bide-lotuneko lurzoruen berrantolaketan, saihebidetako aurreikusi den izaera berria dela eta.
- Igara, Illunbe, Miramon eta 27. poligonoko ekonomia-jarduerako eremuak birprogramatzea (eraikigarritasuna handitzea, erabilerak hibridatzea, altuerako aparkalekua gaitzea —erabilera horretarako lurzoruak libre uzteko—, Igarako erreka desestaltzeko aukera aztertzea, eremua ingurune naturalarekin lotzea errazteko, besteak beste).

Zehazki, HAPOn Aurrerapenak 9 JPU hauek proposatzen ditu:

Altza:

- JPU-AL-01 Txingurriaga: Altzako hego-mendebaldeko muino batean dago, bide-lotunearen ondoan. Gaur egun, Herrerako futbol-zelaia, hainbat etxebizitza eta baratze daude bertan. Eremuaren azalera osoa 98.000 m²-koa da (EJ: 45.000 m²).

Añorga:

- JPU-AÑ-01 Belartzagoia: Indarrean dagoen plan orokorraren barruan dago, udalerraren hego-mendebaldean, eta hasierako onespina duen plan partziala du. Sektoreak 209.735 m²-ko azalera du (EJ: 83.894 m²).
- JPU-AÑ-02 Errekalde: N-1 errepidearekin muga egiten du hegoaldean, eta Amasorrainekin iparraldean. Indarreko plan orokorraren eremu baten barruan gauzatzeko dagoen lurzati bat da, eta xehetasun-azterketa bat du. Lurzatiak 14.671 m²-ko azalera du (EJ: 14.671 m²).

GI-20 ingurunea:

- JPU-GI-20-01 Herrera: GI-20 eta GI-40 errepideen arteko bide-lotuneak hartzen duen eremua da, porturako sarbidetik (iparraldean) Garberako biribilguneraino (hegoaldean). Eremuaren azalera osoa 170.000 m²-koa da (EJ: 198.000 m² sabai).

Ibaeta:

- JPU-IG-01 Igara: Igara poligonoaren mendebaldean dago. Besteak beste, Igarako erreka lehengoratzea, Igarako urmaelaren ingurua birnaturalizatzea, Pilotegi eta Pokopandegi inguruak berrantolatzea (oinetako mugikortasunari lehentasuna emateko) eta bideak berrantolatzea proposatzen da. Mugatutako azalerak 58.600 m² ditu (EJ: 30.000 m²).

Martutene:

- JPU-MA-01 Torruazar: indarreko plan orokorraren hiri-lurzoruko eremu bat da. Eremua berriz urbanizatu nahi da, mugikortasun alternatiboari leku egiteko; eta ingurua berdatu nahi da, poligonoa osatzen duten kaleetan zehar landaredia gehituta eta erabilerak areagotuta. Eremuaren azalera 211.405 m²-koa da (EJ: 56.000 m²).

Miramón-Zorroaga:

- JPU-MZ-01 Miramón: parkea birprogramatzeko proposatutako eremua indarreko plan orokorrean jasota dago, eta GI-20 errepidearen hegoaldean dago. Eremuak 1.325.944 m²-ko azalera du (EJ: 44.000 m² sabai).
- JPU-MZ-02 Illunbe: GI-20 errepidearen zati bat da; Karlos I.era sartzeko tunelen artean dago, Aranzadi Fundazioaren pareraino. Ekonomia-jarduera areagotu nahi da eremuan, eta bihur liteke parke teknologikoaren handitze bat. Mugatutako eremuak 204.400 m²-ko azalera du (EJ: 210.000 m² sabai).

Zubieta:

- JPU-ZU-01 Bugati: egikaritzeko dagoen sektore bat da. Mercabugatiri jarraipena eman nahi dio, eta, beraz, hirugarren sektoreko erabileretarako erabiliko da batik bat. Sektoreak 71.274 m²-ko azalera du (EJ: 30.000 m² sabai).

C.- Sistema orokorren erabilera - Sistema orokorretarako erreserbako lurzoria (SOEL)

Planaren Aurrerapenak Altza auzoan sistema orokorretarako erreserbatutako bi lurzoru mugatzen ditu, 187.101 m² guztira.

- SOEL-AL-01 Landerro: Landerroko eremua hiriaren ekialdean dago, Altza auzoaren hego-ekialdean, eta 152.216 m²-ko azalera du. Espazio libreen sistema orokorrera bideratzea aurreikusten da.
- SOEL-AL-02 Sasoategi: indarrean dagoen plan orokorreko AL.12.1 «Sasoategi» azpieremuan dago, eta 34.885 m²-ko azalera du. Ekialdean, Pasaia udalerriarekin egiten du muga. Lehendik dauden erabilerak finkatu (bizitegi-eraikinak eta ekipamendu-erabilera), eta eremuaren gainerako zatia espazio libreen sistema orokorrera bideratuko da.

D.- Bide-azpiegiturak

Saihesbideari hiri-etorbidearen izaera ematea aurreikusi da; horretarako, bide-sistema doitu behar da, GI-20 errepideko esku-hartzeak eragindako trafikoak xurgatu ahal izateko. Beraz, bypass bat aurreikusi behar da, eta alternatiba hauek aztertu ahal izango dira horretarako:

- GI-40 errepidea gaitasun jarraitu handiagoa duen bide bat bihurtzea.
- Lurpeko beste trazadura alternatibo batzuk aurreikustea.

GI-40 errepidea gaitzea, GI-20 errepidearen izaera-aldaketatik eratorritako trafikoak hartu ahal izateko. Horretarako, GI-40 errepideak ezaugarri hauek izan behar ditu: 80 km/h-ko abiadura, 2.250 ibilgailu/h errei bakoitzeko, hiru errei noranzko bakoitzean, eta elkargunerik ez. Azken ezaugarri hori dela-eta, lotuneak maila desberdinetan egin behar dira, eta azpiegitura berri bat aurreikusi behar da, Martuteneko gaur egungo biribilguneak, ibaia eta 27. poligonoko sarrera gainetik gaindituko dituen. Aurrerapenaren ondorengo garapenak aurreikuspen hori lortzeko bideak aztertu beharko ditu.

E.- Lurzoru desklasifikatuak

Indarrean dauden hiru eremu urbanizagarri desklasifikatzea proposatzen da. Guztira, 127 ha inguru dira, gehienak artifizializatu gabeak. Honako hauek dira: LEZ-ZU-02 Aldatseta, SNU-MA-06 Antondegi eta SNU-ZU-03 Lizarraga.

- LEZ-MA 06 Antondegi: Martutenen dagoen sektore hau indarreko plangintzan definituta dago eta desklasifikatzea planteatzen da, bere natura-balioa mantentzeko. Eremuak 968.638 m²-ko azalera du guztira.
- LEZ-ZU-02 Aldatseta: Zubietan dago, Oria ibaiaren ertzetan, eta sektorea ia erabat desklasifikatzea planteatzen da. Lurzoru guztiak 293.115 m²-ko azalera du.
- LEZ-ZU-03 Lizarraga: Zubietan auzoko kaskoan dagoen Lizarraga-Errotabideko bizitegi-sektorea partzialki desklasifikatzea planteatzen da. Desklasifikatu beharreko azalera 8.863 m²-koa da.

F.- Lurzoru urbanizaezina (LEZ)

Lurzoru urbanizaezinari dagokionez, Planak honako antolamendu-kategoria hauetan banatzen du landa-ingurunea:

- Babes berezia:
 - o Natura 2000 Sareko gune babestuak/Parke Naturala (Uliako itsaslabarrak eta Aiako Harria-Urdaburu enklabea).
 - o Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) funtzio anitzeko interesguneak: Uliako itsaslabarrak, Urdaburu-Añarbe, Mendizorrotz errekek eta Atxulondo-Abalotz.
 - o Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurralde Plan Sektorialaren (LPS) babes berezia (Igeldo-Mendizorrotz inguruko Agiti kalaren antzinako arrain-haztegia izan ezik).
 - o Baso eta zuhaitz-orban autoktonoak (Arantzadi Zientzia Elkartek 2023an Donostiako Udarentzat egindako kartografia eta Eusko Jaurlaritza-Geoeuskadik egindako kartografia).
 - o Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak (91E0* haltzadiak eta lizardiak, eta 4040* kostaldeko txilardiak).
 - o Landarbasoko enklabea. Oso-osorik babes berezi gisa sartzea proposatzen da.
- Ingurumenaren hobekuntza:
 - o Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko «Ingurumenaren hobekuntza» kategoria.
 - o Itsasertzaren LPSko «Ingurumenaren hobekuntza» kategoria (4040* itsasertzeko txilardi-eremuak eta lehen aipatutako basoen inbentarioarekin bat datozen eremuak eta zuhaitz-orban autoktonoak, babes berezi gisa proposatzen direnak).
 - o Gipuzkoako Foru Aldundiaren eremu degradatuen inbentarioa (2021). Agiti kalako arrain-haztegi zaharra ere sartzen da.
- Basoa:
 - o Nekazaritza eta Basogintzako LPS eta Itsasertzaren LPS (babes bereziko baso-orbanak izan ezik).
- Nekazaritza nahiz abeltzaintzako eta landazabalekoa:
 - o Balio estrategiko handia (Nekazaritza eta Basogintzako LPS).
 - o Trantsizioko landa-paisaia (Nekazaritza eta Basogintzako LPS).
- Gainazaleko uren babesa:
 - o Ibai-sarearen kartografia (Geoeuskadi), erreken udal-kartografiarekin osatuta (Donostiako Udala, 2022).

Era berean, aurrerakinak lurzoru urbanizaezinaren antolamendu-kategoriei gainjarritako baldintzatzaile hauek identifikatzen ditu:

a) Natura-arriskuei eta klima-aldaketari lotutako baldintzatzaile gainjarriak:

- Sute-arriskua: oso handia / handia.
- Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten eremuak: oso handia/handia/ertaina.
- Arrisku geologikoak: eremu higagarriak edo higitzeko arriskua dutenak.
- Urpean gelditzeko arriskua duten eremuak.
 - o Jabari publiko hidraulikoa.
 - o Uholde-arriskuen babesa: 10 urte.
 - o Uholde-arriskuen babesa: 100 urte.
 - o Uholde-arriskuen babesa: 500 urte.
 - o Lehentasunezko fluxu-eremua.
 - o UAHE-ES017-GIP-URO-01.

b) Azpiegitura berdearen eta urdinaren baldintzatzaile gainjarriak:

- Beren ingurune-balioengatik babestutako gunek.
 - o Ulia KBE (ES2120014).
 - o Urumea ibaia KBE (ES2120015).
 - o Aiako Harria KBE (ES2120016).
 - o Aiako Harria Parke Naturala (ES212007).
 - o Igarako haritza zuhaitz berezia (ES212010).
 - o Berioko artea zuhaitz berezia (ES212015).
 - o Baso eta zuhaizti autoktonoak.
- Funtzio anitzeko natura-intereseko beste eremu batzuk.
 - o Uliako itsaslabarrak.
 - o Mendizorrotzeko errekek.
 - o Atxulondo-Abaloz.
 - o Urdaburu-Añarbe.
- Funtzionaltasun ekologikorako interes-eremuak.
- Proposatutako Gipuzkoako azpiegitura berdea hobetzeko eremuak.
 - o Gipuzkoako azpiegitura berdea hobetzeko eremuak.
 - o Konektagarritasun ekologikoaren oztupoak.
- Azpiegitura urdina: ibai-sarea (Goeuskadiko ibai-ibilguen eta Donostiako Udalaren 2022ko erreken kartografia).

c) Beste baldintzatzaile gainjarri batzuk:

- Lehentasunezkoak ez diren Batasunaren intereseko habitatak.
- Landa-parkeak.
- Kudeaketa-planekin mehatxatutako fauna.
- Arriskuan dagoen flora berreskuratzeko gunea.
- Eremu narriatuak.
- Geologia Intereseko Lekuak (GIL).

- Udalaren zuhaitz berezien inbentarioa.
- Intereseko ibilbideak.
- Interes geologikoa duten eremuak.
- Onura publikoko mendiak.
- Nekazaritza-ustategi estrategikoak.
- Paisaia babesteko eremuak.
- Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruk.
- Ondare arkeologikoa.
- Erasan akustikoko eremuak.
- Ibaiak eta errekek.
- Kostaldeak.

Proposatutako alternatibak:

Hasierako dokumentu estrategikoan hainbat garapen-eremutarako aurreikusitako alternatibak jasotzen dira: Errondogaña (II), Aduritz-Akular, Landerro, Txingurri, Easo-Amara, Errekalde, Mundaitz, Xabier Lizardi ingurua, Urdintzu (Loiolako Kuartelak), Antondegi, Apostulantza, Sarroeta, Trinketea, Torruazar zabalpena, Antzieta, Lastuenea, Harrobia, Miramon zabalpena, Zubietako Kaskoa, Aldatseta, Tellerialde eta Lizarraga.

Baztertu egin da alternatibak aztertzeko fasean planteatutako proposamen hauen garapena: Zubietako Kaskoa (BPU-ZU-A01), Miramon zabalpena (JPU-MZ-A03), Harrobia (JPU-MZ-A02), Lastuenea (JPU-MZ-A01), Torruazar zabalpena (JPU-MA-A01) eta Xabier Lizardi ingurua (BPU-IB-A01).

Gainerako eremuetarako, Planaren deskribapenean garatutako alternatiba hautatu da, eremuen beste mugaketa-aukera eta erabilera desberdinen artean.

2. Ingurumen-helburu estrategikoak, eta aplikatu beharreko jasangarritasun-printzipioak eta -irizpideak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-lerroak hartuko dira Plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Gainera, kontuan hartu beharko dira Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan jasotako irizpideak eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritako helburuak eta printzipioak, bai eta Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legean zehaztutako helburuak eta printzipioak ere.

Era berean, kontuan hartuko dira Planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Zehazki, Plana zuzentzeko, garapen jasangarriko honako printzipio hauek hartu beharko dira kontuan:

- a) Lurzorua zentzuz eta modu intentsiboan erabiltzea eta lehendik ere artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, nekazaritza-balio handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizatzetik babestuta.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea, irisgarritasuna sustatuz, lurzoruaren erabilerean eta mugikortasunaren plangintza integratuaren eta hiri-egitura dentsu, trinko eta konplexuen bidez.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.

- d) Ur-masen egoera ekologiko ona zein baliabide horren erabilera jasangarria lortzea.
- e) Habitatak eta espezieak, natura-ingurumena eta konektagarritasun ekologikoa zaintzea eta hobetzea.
- f) Saihetsezin gisa ebaluatutako kapital naturalaren galerak konpentsatzea, eta konpentsazio horretarako beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea.
- g) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak leheneratzea eta lurzorua artifizializazioa mugatzea.
- h) Paisaiak eta kultura-ondarea kontserbatzea eta hobetzea.
- i) Ondare geologikoa kontserbatzea.
- j) Natura-baliabideen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- k) Energia-aurrezpena eta -efizientzia eta energia berriztagarrien nahiz kogenerazioaren erabilera sustatzea.
- l) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- m) Klima-alaketarekiko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta aldetara egokitzeko neurriak integratuz.
- n) Arrisku naturalak minimizatzea.
- o) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa eta eragileen eta lurzorua erabiltzaile potentzialen jardura indartuz.

3. Eremu geografikoa eta ingurumen-garrantziko eremuak.

Udalerria Donostiako gune nagusiak eta Zubietak, Landarbaso eta Urdaburu enklabeek osatzen dute. Gipuzkoako ipar-ekialdean daude, Donostialdeko eskualdean.

Gune nagusiak muga hauek ditu: Kantauri itsasoa iparraldean; Orio eta Usurbil mendebaldean; Usurbil, Lasarte-Oria, Hernani eta Astigarraga hegoaldean; eta Erreterria eta Pasaia ekialdean. Zubietak, berriz, muga hauek ditu: Usurbil iparraldean eta mendebaldean; Lasarte-Oria ekialdean; eta Andoain eta Zizurkil hegoaldean. Landarbasok muga hauek ditu: Astigarraga eta Erreterria iparraldean; Hernani mendebaldean eta hegoaldean; eta Erreterria ekialdean. Azkenik, muga hauek ditu Urdaburuk: Hernani iparraldean eta mendebaldean; Arano (Nafarroa) mendebaldean; eta Erreterria hegoaldean eta ekialdean.

Artikutzako enklabea (Udalarena da 1919tik) Goizuetako udalerrian (Nafarroa) dago. 3.700 ha inguruko azalera du, eta Oiartzun, Lesaka, Arantza, Zubietak eta Beintza-Labaienekin muga egiten du.

Jarraian, natura-ingurunearen eta hiri-habitataren ezaugarri garrantzitsuenak nabarmenduko ditugu:

- Kantauri itsasoak bustitzen du Donostia; gutxi gorabehera, 12 km-ko kosta-lerroa dauka. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako Zatiaren Plan Hidrologikoan (2021-2027), kostaldeko ur-masa horiek «Getaria-Higer» eta «Mompas-Pasaia» izenak jasotzen dituzte.
- Udalerriko sare hidrografikoa Urumea, Oria eta Oiartzungo unitate hidrologikoetako (UH) ibilguen sare trinko batek osatzen dute, eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoari dagokio.

Urumea da udalerrian azalera gehien hartzen duen unitate hidrologikoa. Ibai-ibilguak ur-masetara isurtzen diren sei arrotan banatuta daude. Urumea ibaia eta Zurriolaren bokalea Urumea ibaiaren trantsizioko isurialdeko arroaren barruan daude. Kostaldea —Mendizorrotzetik Igeldoraino, Ondarretatik Urgull mendiraino eta Zurriolako eskuineko ertzetik Uli mendiraino— Urumeako isurialdean dago, kostaldeko drainaduran. Antigua, Ibaeta, Añorga, Igeldo (zati batean) eta Aiete

auzoetako ibaiak eta errekek Igara-A isurialdeko arroan daude. Trantsizioko drainatze-arroak Aieteko ekialdeko eta Erdialdeko, Intxaurrondoko iparraldeko eta Gros, Egia, Amaraberri, Loiola, Miramon-Zorroaga eta Martuteneko auzo guztietako arroak hartzen ditu barne. Landarbasoko enklabe ia osoa Landarbaso izeneko ur-masaren isurialdeko arroan dago. Landarbasoko hegoaldeko mugaren azalera txiki bat eta Urdaburuko enklabe osoa Urumea II isurialdeko arroan daude.

Oria ibaiaren Unitate Hidrologikoko ibaiak eta errekek (Zubietan) Oria VI ur-masaren isurialdeko arroan daude.

Oiartzun Unitate Hidrologikoari dagokionez (udalerrriaren ekialdean), Altza, Herrera eta Bidebieta auzoak eta Intxaurrondoko ekialdeko zatia trantsizioko Oiartzun ur-masaren isuri-arroan daude.

- Itsaso eta Lehorren arteko Jabari Publikoari (ILJP) dagokionez, Donostiako kostalde osoa eta Urumea ibaia eta haren inguruak ILJPren barruan daude.
- Plan Hidrologikoaren Eremu Babestuen Erregistroak Igeldoko hezeguneak hartzen ditu barne: Goienetxeko putzua, Munotxabalgo putzua, Errotaberriko putzua, Etxebesteko putzua eta Egiluzeko putzua. Udalerrriaren mendebaldea, Igeldo ingurua, «Arriskuan dauden espezieen interes bereziko eremu» gisa identifikatuta dago, zehazki hegoaldeko igelarentzat (*Hyla meridionalis*). Era berean, Landarbaso eta Urdaburua bisoi europarrari (*Mustela lutreola*) eta muturluze piriniotarrari (*Galemys pyrenaicus*) dagozkien espezie mehatxatuen interes bereziko eremuak daude. Ingurune hidrikoarekin lotutako habitatak edo espezieak babesteko eremuetan sartzen dira Natura 2000 Sareko Uria KBE (ES2120014) eta Aiako Harriak KBE (ES2120016). Gainera, itsasertzean «Bainatzeko eremuak» daude (Ondarreta, Kontxa eta Zurriola hondartzak), eta, udalerrriaren ekialdean, «Oiartzun estuarioa» dago, mantenguaieen ekarpenarekiko sentikorrek diren eremuen bilketa-gunea.
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze LPSaren arabera, Urumea ibaia, Donostiatik igarotzen den tartean, IV. mailakoa (200-400 km²) da, dituen osagai hidraulikoak direla eta; bestalde, Oria ibaia VI. mailakoa da (> 600 km²) Zubietatik igarotzen den tartean; eta udalerriko gainerako ibilguk 1-10 km² (0 maila) edo 1 km² (00 maila) baino gutxiagoko isuri-arroak dituzte. Horrez gain, LPS horren arabera, ibilguk ingurumen-osagaia kontuan hartuta, aipatzekoa da Urumea ibaiaren, Oria ibaiaren eta Urumearen zenbait adarren (Igara, Oiala, Landarbaso) eta Oiartzunen (Molinao) sekzio txikiak «ondo kontserbatutako landaredia duten eremuak» direla.
- Ikuspegi hidrogeologikotik, nukleo nagusi ia guztia Zumaia-Irun lurpeko ur-masaren gainean dago; Zubietan osoa eta Landarbaso iparraldea Andoain-Oiartzun lurpeko masaren gainean daude; eta Landarbasoko hegoaldea eta Urdaburu osoa, berriz, mendigune paleozoikoen masaren gainean daude. Zumaia-Irun ur-masan, udalerriko gune nagusian honako sektore hauek identifikatu dira: Zumaia-Irun Kuartenaria, Erdialdea, Oiartzun Kuartenaria eta Txoritokieta. Zubietan, Andoain-Oiartzun lurpeko masaren zati handi bat Andoain Kuartenarioari dagokion sektorean sartzen da. Udalerrian interes hidrogeologikoko hainbat eremu daude.
- Naturagune babestuei dagokienez, Donostiako tarte batzuk ES2120014 Uliako KBEan, Aiako Harria Parke Naturalean eta ES2120016 KBEan daude. EAEko hezeguneen inbentarioaren arabera, udalerrian Urumearen itsasadarra (A1G5) eta Landarbasoko putzua (EG4) identifikatzen dira. Era berean, EAEko Naturagune Garrantzitsuen Katalogoko zenbait espazio identifikatu dira, eta horiek ere EAEko Azpiegitura Berdearen Biodibertsitate Erreserba gisa sartzen dira: Mendizorrotz, Atxulondo-Abaloiz eta Urdaburu-Añarbe errekek eta Uliako itsaslabarrak. Urumea ibaia azpiegitura berde horren bilbe urdinean dago.

- Geologia Intereseko Lekuak ere badaude udalerrian: Donostiako badia (089 GIL) eta Pasaia-Donostiako egiturazko itsaslabarrak (099 GIL). Gainera, katalogatutako bi gailur daude: Igoin Landarbason eta Urdaburu izen bereko enklabeen.
- Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialaren arabera, balio estrategiko handiko lursailak daude hiri-bilbearekin mugakide diren landa-lurzoruetan. Udalerrian, lurzoru horiek haranaren hondoetan daude batez ere, eta honako hauek nabarmentzen dira: Igeldoko zonako gainazalak, Añorgako mendebaldean dauden lurzoruak, Aizmendi inguruak eta Lau Haizetako lursailak. Guztira, 293,67 hektareako azalera dute, udalerraren % 4,81, alegia.
- Donostialdeko LPParen arabera, “Nekazaritza eta abeltzaintzako 6 eremu estrategiko” daude udalerraren mugen barruan (Igeldo, Igara, Usurbil-Guarda, Zubieta, Gartziategi eta Lau Haizeta). LPPan jasotako nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategiko horietako batzuk indarrean dagoen HAPOk “C.2. Balio agrologiko handiko lurrak eta ustiategi estrategikoak” baldintzatzaile gainjarriari dagozkio.
- Landarediari dagokionez, udalerraren ezaugarri nagusiak dira hiri-izaera eta populazio-dentsitate handia; izan ere, artifizializatuta dauden azalerek okupatzen dute herena baino gehixeago. Hala ere, baso autoktonoaren azalera handia da (% 24), eta hariztiekin eta hostozabalen baso natural gazteekin osatzen dute batik bat, baita artadi, pagadi, haltzadi eta abarrek ere. Neurri txikiagoan, belardiak eta larreak (% 16) eta koniferoen baso-landaketak daude, udalerraren azalera osoaren % 8 inguru (batez ere *Pinus radiata*). Kostaldeko txilardiek udalerraren azalaren % 3 hartzen dute. Zenbait eremutan, hala nola Igeldo-Mendizorrotz mendebaldean eta Uliako erdialdean, *Schoenus nigricans* zingira txikiak daude kostaldeko txilardiaren barruan, eta horrek habitat horren dibertsitatea areagotzen du.
- Donostiako udalerrian Batasunaren intereseko 12 habitat mota daude, eta udalerraren azalera osoaren % 20 baino zertxobait gehiago hartzen dute (1.225,4 ha). Zehazki, honako hauek dira identifikatutako Batasunaren intereseko habitata: Kostalde atlantiko eta baltikoko landaredia duten itsaslabarrak (1230 BIH); *Magnopotamion* edo *Hydrocharition* landaredia duten laku eutrofikoa naturalak (3150 BIH); Kostaldeko txilardi lehor atlantikoak, *Erica vagans* espeziekoak (4040* BIH); Txilardi lehor europarrak (4030 BIH); Belardi lehor erdinaturalak eta kare-substratuen gaineko sastrakadi-faziesak (* orkidea ugariko lekuak) (6210* BIH); Altitude txikiko sega-belardi pobreak (6510 BIH); Trantsizioko zohikaztegiak (7140 BIH); Landaredi kasmofitikoa duten malda harritsu kaltzikolak (8210 BIH); landaredi kasmofitikoa duten malda harritsu silizeoak (8220 BIH); *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieetako baso alubialak, lehentasunezkoak (91E0* BIH); eta Pagadi azidofilo atlantikoak, *Ilex* oihanpearekin eta, batzuetan, *Taxus* oihanpearekin (9120 BIH).
- Mehatxatutako florari dagokionez, Aranzadi Zientzia Elkartek egindako azterlanak (2008-2009) honako 17 espezie hauek jasotzen ditu udalerriko mehatxupeko eta intereseko flora gisa: *Armeria euscadiensis*, *Carex strigosa*, *Frankenia laevis*, *Ilex aquifolium*, *Iris latifolia*, *Juncus acutus*, *Malus sylvestris*, *Narcissus bulbocodium* subsp. *Citrinus*, *Narcissus pseudonarcissus* subsp. *pallidiflorus*, *Pinguicula lusitánica*, *Pyrus cordata*, *Quercus suber*, *Ruscus aculeatus*, *Sorbus torminalis*, *Stegnogramma pozoi* eta *Woodwardia radicans*. Ulian, *Armeria euscadiensis* nabarmendu behar da, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoko «kaltebera» kategorian sartuta dagoen espeziea. Mendizorrotzeko erreketan iratze makaronesikoak (*Woodwardia radicans* eta *Stegnogramma pozoi*) daude, askoz ere hegoalderago dauden latitudeetakoak izan ohi direnak, bertako tenperatura- eta hezetan baldintza bereziak direla eta. Bestalde, “EAE flora mehatxatua kontserbatzeko dokumentu teknikoak. 2011” dokumentuaren arabera, *Prunus lusitanica* espezieak kontserbazio-eremu bat du Urdaburutik iparraldera.
- Udalerrian bi zuhaitz berezi ditu, monumentu natural gisa identifikatuak: Berioko artea (*Quercus ilex*) eta Igarako haritza (*Quercus robur*). Haien neurriengatik dira bereziak: 22 eta 20 metroko adaburu-diametroa dute, hurrenez hurren. Zuhaitz berezi horien eta haien babes-eremu

periferikoaren araubide espezifikoa otsailaren 11ko 23/1997 Dekretuak (Euskal Autonomi Elkarteko zuhaitz apartekoen bigarren izendapena egiteko dena) ezarritakoa da.

- Faunari dagokionez, hasierako dokumentu estrategikoak dio udalerrian Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan (CVEA) sartutako hiru espezie daudela inbentariatuta, “Galzorian” kategorian; espezie horiek kudeaketa-planak dituzte onartuta. Hegoaldeko igela (*Hyla meridionalis*), muturluze piriniotarra (*Galemys pyrenaicus*) eta bisoi europarra (*Mustela lutreola*) dira, eta hegazti nekrofagoak (*Gyps fulvus*, *Neophron percnopterus* eta *Gypaetus barbatus*).

Hegoaldeko igelaren kudeaketa-plana 1999ko azaroaren 10eko Foru Aginduaren bidez onartu zen, eta gero zabaldu egin zen. Bestalde, 2005eko abenduaren 23ko Foru Aginduaren bidez espeziearen ugalketa-enklabeen katalogoa argitaratu zen; katalogo hori 16 enklabek osatzen dute, eta horietatik 10 Donostiako udalerrian daude (Goienetxe, Errotatxo, Pokopandegi, Munotxabal, Etxebeste, Egiolera, Arrate, Egiluze, Errotaberri eta Etume).

Muturluze piriniotarraren kudeaketa-plana 2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduaren bidez onartu zen. Bertan, interes bereziko eremutzat hartzen dira Urumea ibaia eta Landarbaso edo Epele erreka (Donostiatik igarotzen diren zatiak). Interes bereziko eremu horiek bat datoz bisoi europarraren kudeaketa-planeko interes bereziko eremuekin (2004ko maiatzaren 12ko Foru Agindua).

Era berean, putre arruntak (*Gyps fulvus*) eta sai zuriak (*Neophron percnopterus*), ugatzarekin batera (*Gypaetus barbatus*), «Euskal Autonomia Erkidegoan Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak kudeatzeko baterako plana» dute (2015eko ekaina). Udalerrian, plan horren aplikazio-eremua Aiako Harria Parke Naturalean oinarritzen da, Urdaburu enklabean, Interes Bereziko Eremutzat eta Elikadurarako Babes Eremutzat hartzen baita.

Bestalde, ubarroi mottodunak (*Phalacrocorax aristotelis*) —espezie kaltebera da Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoaren arabera (CVEA), Itsas Enara Ornitologia Elkartek 2019an espezie horretarako egin zuen eroldaren arabera— kolonia bat du Monpas-Ulian, Gipuzkoako garrantzitsuen, eta lurraldeko populazio ugaltzailearen erdia hartzen du gutxi gorabehera: habien % 53, Igeldokoarekin batera.

- Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduaren arabera, zeinaren bidez zedarritzen baitira hegazti-espezie mehatxatuen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak, eta argitaratzen baitira abifaunaren babes-eremuak —non aplikatuko baitira goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatze edo talka ez egiteko neurriak—, hiru sektore hauek identifikatzen dira Donostian: Kosta-Inurritza-Oria (Kontxa hondartzatik mendebaldera dagoen kostaldearen zatia, Zubietako ipar-mendebaldearekin batera), Kosta-Ulia-Jaizkibel (Kontxatik ekialdera dagoen kostaldea, Uliaraino) eta Aiako Harria (Urdaburuko enklabea).
- Udalerrian onura publikoko mendi bat bakarrik dago (2.069.1 zenbakia), Urdaburutik hegoaldera, 122 hektareakoa.
- Udalerriaren barruan, «EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogo Irekiak» paisaia-balio oso handiko gisa katalogatzen ditu Mendizorrotz, Igeldo eta Murgitako arro bisualak. Era berean, udalerriko itsasertzeko zerrenda osoa Mendizorrotz, Igeldo, Ondarreta, Pasaia, Santa Klara eta Murgitako Itsas Eragin Eremu Katalogatuaren barruan dago, hau da, itsasoak paisaiaren balioan eragin positiboa duen eremuan. Adierazi behar da Urdaburuko ekialdeko eta hegoaldeko zerrenda bat ere, Añarbeko arro bisuala, paisaia-balio oso handiko gisa katalogatzen dela. Horrez gain, bi paisaia-mugarri identifikatu dira: Urgulleko gaztelua eta Platako itsasargia.
- Donostiako udal-mugartean, kultura-ondareko hainbat elementu arkeologiko eta arkitektoniko daude.

- Ingurumen-arriskuei dagokionez, udalerrian identifikatu dira lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan dauden hainbat lurzati.
- Bestalde, 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denboran uholdeek urpean utz ditzaketen eremuak identifikatu dira Oria, Urumea eta Igarako ibai-ibilguen ibai-dinamikari lotuta, lehenengo bietako beste erreka batzuez gain (Arkaitzerreka, Errekabeltza, Oiaola eta Antoña). Donostian, UAHE hauek daude: ES017-GIP-URU-01 Urumeako eta Galtzaurreko ibai-ibilguetan (Urumea-2), ES017-GIP-URU-02 Igaran eta ES017-GIP-URU-03 itsasoaren eraginaren ondoriozko uholde-arriskua (Donostia-Kosta).
- Akuiferoen kalteberatasunari dagokionez, txikia eta oso txikia da ia udalerri osoan; hala ere, kalteberatasun ertaineko zati txiki batzuk badaude Ondarretan, Igeldon, Urumeako ibarrean, Zubietako hegoaldean, Landarbasoko erdialdean eta Urdaburuko iparraldean eta hegoaldean. Oria ibaiaren inguruan, Zubietako hegoaldean, akuiferoak kutsatzeko arrisku handia duen azalera txiki bat dago.
- Udalerriaren barruan, instalazio eolikoak eta instalazio fotovoltaikoak ezartzeko 4 sentikortasun-kategorietako eremuak daude, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak argitaratutako «Energia eoliko eta fotovoltaikoaren garapena eta horren bateragarritasuna EAEko natura-ondarearen kontserbazioarekin» gidaren arabera¹.
- Egoera akustikoari dagokionez, eta aurkeztutako dokumentazioaren arabera, honako hauek dira zarata gehien eragiten duten fokuak: bide-azpiegiturak (batez ere AP-8, GI-20, GI-41), trenbide-azpiegiturak, Euskotren (Bilbo-Donostia eta Donostia-Irun lineak) eta ADIF (Zumarraga-Irun), eta, neurri txikiagoan, industria-instalazioak.

4. Jarduketak kokatzeko eremu desegokiak.

Ingurune fisikoan ondorio nabarmenak dituzten jarduketak egiteko, desegokitza jo beharko dira aurreko apartatuan jasotako ingurumen- edo kultura-balio garrantzitsuak dituzten eremu guztiak.

Era berean, printzipioz, desegokiak izan daitezke uholde-arriskuko edo kutsadura akustikoak eragindako eremuetako hirigintza-garapen berriak. Hala ere, aplikatu beharreko ingurumen-araudia errespetatzen bada eta behar diren neurriak hartzen badira, eremu horiek egokiak izan daitezke aurreikusitako jarduketaren bat garatzeko.

HAPOk planteatzen dituen proposamenen arabera, garapenaren xede diren eremu batzuek uholde-arriskua dute. Azterketan justifikatu egin beharko da proposatutako antolamenduak bete egiten duela urtarilaren 24ko 35/2023 Errege Dekretuaren I. eranskineko 43. eta 45. artikuluetan ezarritakoa. Errege-dekretu horren bidez, demarkazio hidrografiko hauen plan hidrologikoak berrikustea onartu zen: Kantauri Mendebaldeko, Guadalquivirreko, Ceutako, Melillako, Segurako eta Jucarreko mugape hidrografikoak eta Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Gadianako eta Ebroko mugape hidrografikoen Espainiako alderdia.

Halaber, eragin akustikoa duten eremuek, oro har, hots-kutsadurari buruzko araudia bete beharko dute, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua ere. Etorkizunean ezin izango da egin hirigintza-garapenik kanpoaldeko kalitate akustikoko helburuak betetzen ez diren eremuetan, hargatik eragotzi gabe aipatutako Dekretuaren 43. eta 45. artikuluetan ezarritakoa.

Hirigintza-garapen berriei heldu ahal izateko, naturaren, kulturaren eta ingurumen-arriskuaren ikuspegitik aipagarriak ez diren guneak lehenetsi beharko dira, hala nola lurzoru antropizatuak eta lurzoru kutsatuak.

¹ <https://www.euskadi.eus/documentacion/2022/desarrollo-de-las-energias-eolica-y-fotovoltaica-y-su-compatibilizacion-con-la-conservacion-del-patrimonio-natural-en-la-capv/web01-a2inginp/es/>

Gune horiek identifikatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Departamentuaren Gipuzkoako Eremu Degradatuen inbentarioa kontsultatzea proposatzen da (2020ko abendua)².

Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da, haren harrera-gaitasuna, arriskuguneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko aukera emango duena.

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra.

Jarraian, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsultak egiteko izapidean jasotako txostenetako ingurumen-alderdi garrantzitsuenak laburbildu dira:

Kultura-ondareari dagokionez

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak kultura-ondareko elementuen zerrendak aurkezten ditu, esku-hartzeetarako irizpideak barne, eta sektoreko araudian izan diren berrikuntzak jasotzen ditu.

- Alde batetik, 1. eranskinak interes arkitektoniko eta arkeologikoko elementu higiezinaren zerrenda indibidualizatua jasotzen du. Hainbat zerrendatan bilduta daude, eskema honen arabera:

1. ONDARE ARKITEKTONIKOA

1.1. Babes berezi eta ertainekotzat deklaraturako higiezinak, Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan sartuta daudenak.

1.2. Katalogoan «6/2019 Legearen ondorioetarako oinarritzko babeseko ondasun» gisa sartzeko proposatu diren higiezinak, zehazki 14/2023 Legeak aldatutako 8.1.c eta 21. artikuluen ondorioetarako (2023ko abenduaren 15eko EHAA, 238. zk.).

1.3. Udalaren hirigintza-plangintzaren bidez udal-intereseko ondasun gisa babesteko proposatu diren higiezinak, Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 8.2 artikuluen arabera, 14/2023 Legeak aldatua (2023ko abenduaren 15eko EHAA, 238. zk.).

2. ONDARE ARKEOLOGIKOA

2.1. Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan inskribaturako eremu arkeologikoak.

2.2. Presuntzio arkeologikoko gune aitortuak.

2.3. Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen babesean babesteko proposaturako interes arkeologikoko eremuak.

- Bigarren eranskinak Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ondasun gisa deklaraturako elementuetarako indarrean dauden arau-aginduei buruzko informazioa jasotzen du, baita katalogoan «6/2019 Legearen ondorioetarako oinarritzko babeseko ondasunen» katalogoan edo udal-mailan sartzeko proposaturako elementuetarako gomendaturako babes-irizpideak ere.
- Hirugarren eranskina 6/2019 Legea aldatzeak dakartzan berrikuntzei buruzkoa da (14/2023 Legea, azaroaren 30ekoa, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzekoa. 2023ko abenduaren 15eko EHAA, 238. zk.), horiek zuzenean eragiten baitiote kultura-ondarearen babesari, udaleko hirigintza-plangintzaren bidez. Horrela, udalaren hirigintza-plangintzaren katalogoetan babes-maila espezifiko bat jaso beharko da, «6/2019 Legearen ondorioetarako, oinarritzko babesa duten kultura-ondasunak» izenekoak, eta hor sartuko dira lege horren 8.1.c artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten intereseko ondasun higiezinak.

² <https://www.gipuzkoa.eus/documents/3767975/24833677/Memoria+II+%28ES%29/c04354c8-bffa-8f79-48c5-37b071c3d451>

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak adierazi duenez, Donostiako HAPOn berrikuspenak behar bezala bete beharko ditu Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzen duen azaroaren 30eko 14/2023 Legean ezarritako babes-mailak eta baldintzatzaileak, eta Donejakue Bidearen trazaduraren gaineko eragina eta ukitutako elementu katalogatuak aztertu beharko dira. Horrez gain, adierazi du ikusizko kutsadura edo kutsadura akustikoa eragiten duten elementuak kontrolatzeko edo ezabatzeko neurriak hartu beharko liratekeela, Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen arabera.

Gainera, katalogoa osatze aldera, elementu bakoitzaren fitxa bat egitea gomendatzen da. Fitxa horretan, elementuaren kokapena, deskribapen orokorra, ondare-intereseko balioak, argazkiak, babes-araubidea eta kontserbazio-egoera jasoko dira; era berean, Kultura Saileko Ondare Historiko-Artistikoaren Zerbitzuko datu-baseko elementuen zerrenda orientagarria erantsiko da, ondare arkitektoniko eta arkeologikoko elementuak aztertzean kontuan har daitezten.

Natura-ondareari dagokionez

Biodibertsitatean eragina duten jasangarritasun-irizpideei dagokionez, honako hauek adierazi behar dira:

- Antondegi (968.638 m²), Aldatseta (293.115 m²) eta Lizarragako (zati batean desklasifikatuta: 8.863 m²) lurzoru urbanizagarriak (127 ha guztira) desklasifikatzea positibotzat jotzen bada ere, Aurrerapenak 571 hektarea okupatzea planteatzen du (330,75 ha bizitegi-garapenetarako eta 240,21 ha ekonomia-jardueretarako). Lurzoru horietako asko ez daude artifizializatuta, nahiz eta indarreko plangintzan lurzoru urbanizagarri gisa kalifikatuta egon. Proposamen horrek lurzoru-kontsumo handia eskatzen duenez, idatziko den ingurumen-azterketa estrategikoak (IAE) behar bezala justifikatu behar du HAPOn proposamena bat datorrela Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak 2021eko abuztuan emandako txostenean adierazitako irizpideekin.

Hiri-ereduari eta lurzoruaren okupazioari dagokionez, IAEak bereziki aztertu beharko lituzke natura-ondarean eragin gehien izango duten proposamenak. Ildo horretan, bizitegi-eremu hauek nabarmentzen dira:

- BPU-AL-A01 Aduritz-Akular: hartuko lukeen azalera handia eta nolabaiteko interes ekologikoa duten ibarbideetan izango lukeen eragina kontuan hartuta, Aduritz-Akularren garapen-proposamena ezestea gomendatzen da. Proposamenari eustea erabakiz gero, alde batetik, behar bezala justifikatu beharko da jasangarritasunaren aldetik, eta, bestetik, proposatutako mugaketa eta antolamendua berrikusi beharko dira, ibarbide horiei ahalik eta gutxien eragiten zaiela bermatzeko. Horretarako, IAEak xehetasunez aztertu beharko ditu honako alderdi hauek: horien osaera, bertan dauden espezieak, kontserbazio-egoera, azalerak, tokiko konektagarritasun ekologikoan duten eginkizuna, etab.
- BPU-IB-03 Ilarra: hego-ekialdeko muturrean baso misto atlantiko txiki bat dago, eta, proposatutako antolamenduaren arabera, espazio libreetarako erabiliko litzateke. Baldintza hori berariaz jaso beharko litzateke eremuaren araudi berezian, zuhaitz-masaren babesa bermatzeko.
- BPU-IB-03 Sarroeta-Martuteneko Pasealekua: hegoaldeko zatia Urola ibaiari lotutako haltzadi-zerrenda estu batek eta baratze eta fruta-arbolek okupatzen dute gaur egun, eta espazio libreetarako erabiliko da ia dena (eremuaren fitxaren arabera). Proposamena positibotzat jotzen da, erriberako basoaren egoera hobetzeko jarduketak egitea ahalbidetuko lukeelako. Nolanahi ere, alderdi hori eremuaren araudi berezian berariaz jasotzea gomendatzen da.
- BPU-LO-01 Urdintzu (Loiolako kuartelak): harizti-masa handia du, eta, proposatutako antolamenduaren arabera, espazio libreetarako erabiliko litzateke batik bat; hala ere, bide berri bat eraikitzeak nabarmen eragingo lioke. IAEak eragin horren azterketa egin beharko du, eta bertan dauden espezieak, kontserbazio-egoera, eragindako azalera, tokiko konektagarritasun ekologikoan duen eginkizuna eta abar baloratu beharko ditu, aurreikusitako bidearen alternatibak planteatzeko, eta, horrela, harizti-masaren gaineko eragina minimizatzeko. Nolanahi ere, eragindako baso-azalera 1:2 ratioan (eragindakoa: leheneratua) konpentsatu beharko da, natura-ondarearen galera garbia nulua dela ziurtatzeko.

Ekonomia-jardueretara bideratutako eremuei dagokienez, IAEak bereziki aztertu beharko ditu honako proposamen hauek, natura-ondarean eragin handiagoa izango baitute:

- o JPU-AÑ-01 Belartzagoia: indarrean dagoen «AÑ.13.1 Belartza Garaia» eremuari dagokio eta behin-behinean onartutako plan partzial bat du. Izapidetze-prozesuan, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak hainbat aldiz egin ditu jakinarazpenak, azkenekoz Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordean (Kodea: 3HI-028/23-N36), 2023ko uztailean. Ildo horretan, HAPO berriak orduan planteatutakoari erantzun behar dio, eta konpentsazio-neurrien proiektu bat egin beharko da eremua garatu ahal izateko. Proiektu horretan argi eta garbi identifikatuko dira jarduketaren xede izango diren lurzatiak, horien egoera deskribatuko da, eta gauzatu beharreko jarduketak zehatz-mehatz zehaztuko.
- o JPU-AL-01 Txingurrigaña: futbol-zelai bat eta harizti/baso misto handi bat daude gaur egun. Hiriguneek eta bide-azpiegiturak inguratzen dute. Proposatutako antolamenduaren arabera, eremuaren zatirik handiena espazio libreetarako erabiliko litzateke, eta, horri esker, zuhaitz-masaren zati handi bat babestu ahal izango litzateke. Edonola ere, alderdi hori berariaz jaso beharko litzateke eremuaren araudi berezian.
- o JPU-ZU-01 Bugati: hariztiak hartzen du zati handi bat. IAEak zuhaitz-masaren azterketa xehatua egin beharko du, eta bertan dauden espezieak, kontserbazio-egoera, azalerak, tokiko konektagarritasun ekologikoan duen eginkizuna eta abar baloratu beharko ditu, haren antolamenduak izango duen eragina minimizatzeke. Nolanahi ere, eragindako baso-azalera 1:2 ratioan (eragindakoa: leheneratua) konpentsatu beharko da, natura-ondarearen galera garbia nulua dela ziurtatzeko.
- o JPU-IG-01 Igara: HAPOn Aurrerapenean aurreikusitako antolamendu-irizpideen artean, honako hauek nabarmendu behar dira: «Igarako erreka berreskuratzea, inguruan dauden lurzatiak berrantolatuta» eta «Igarako urtegiaren ingurua birnaturalizatzea eta hegoaldeko igelaren (*Hyla meridionalis*) ugalketarako leku gisa dituen ezaugarriak indartzea». Bi proposamenak positibotzat jo badira ere, HAPOn hurrengo faseetan hobeto zehaztuko dira garatu beharreko jarduerak, orduan balioetsi ahal izango baita horien egokitasuna. Edonola ere, urtegia birnaturalizatzeke aukera Gipuzkoako Foru Aldundiarekin adostu beharko da, hura baita hegoaldeko igelaren kudeaketa-planaz arduratzen den administrazioa.

Adierazitako guztiaz gain, irizpide orokor gisa, hiri-eredua definitzeko orduan honako jarraibide hauek betetzea gomendatzen da:

- o Lehentasuna emango zaio hirigintza-garapen berriak zuhaitz-masa autoktonorik edo lehentasunezko habitatik ez duten eremuetan kokatzeari. Halakorik egonez gero, espazio libreetara bideratzea lehenetsiko da.
- o Plangintza xehatua garatzeko, eremua lehengoratzeko plan bat idatzi eta gauzatu beharko da, eta honako irizpide hauen arabera idatziko da:
 - o Zuhaitz eta zuhaixka autoktonoen multzo eta eraketa linealak ezartzeko ahalegina egingo da, baita polinizatzaileak erakarriko dituzten lore-parterreak jartzeko ere; ahal dela, horiek inguruan dagoen landaredia naturalarekin lotuz eta habitat naturalizatu bat birsortuz.
 - o Obren fasean intereseko landarediari ez eragiteko neurriak hartuko dira (balizak jartzea, etab.).
 - o Obrek aldi baterako eragindako eremuak eta esku-hartzerik egingo ez den espazio libreak birlandatuko dira, eremura egokitutako landaredi autoktonoa oinarri hartuta.
 - o Protokolo bat idatziko da inbasio-prozesuak sor ditzaketen landare-espezie aloktonoak kontrolatzeko eta desagerrarazteko (adibidez, *Cortaderia selloana*, *Fallopia japonica*, etab.).
- o Intereseko landaredia kenduz gero (nolanahi ere, behar bezala justifikatu beharko da), konpentsazio-neurriak hartuko dira, eragindako eremuaren azalera berdina edo handiagoa duen lurraldeko/udalerriko eremu degradatu baten ingurumen-lehengoratzeari egiteko. Ezinbestekoa da gertatzen diren kapital naturalaren galerak konpentsatzea.

- o Galzoriko fauna-espezieen interes bereziko eremuei —detektatzen direnei— ez zaie eragingo; horretarako, beste toki batzuk bilatuko dira garapen berrietarako, edo prebentzio- eta zuzenketa-neurriak hartuko dira.
- o Edonola ere, garapen berrien proposamenek esku-hartzearen paisaia-integrazioarako neurriak izan beharko dituzte: landare-pantailak jartzea, etab. Bertako espezieak erabiltzea eta ohiko lorategietatik at dauden konponbideak erabiltzea lehenetsiko da, ahalik eta espazio naturalizatuenak sortuz (gomendatzen da Ihebek argitaratutako Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua kontuan hartzea).

Oro har, HAPOn Aurrerapenak egiten duen lurzoru urbanizazina (LEZ) antolatzeko proposamena bat dator Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak 2021eko abuztuko bere txostenean emandako irizpideekin. Dena den, LEZa antolatzeko planoekin kontrastatu behar da.

Landa-lurzoruari dagokionez

- Nekazaritza eta Basozaintzako LPS Aplikatzeko Araudia udal-plangintzan sartzeari begira (10. artikulua):
 - Lurzoru urbanizazinerako proposatutako kategorizazioa positiboki baloratu da oro har.
 - Hala ere, Babes Bereziko kategorian sartu diren nekazaritzako lurzoru eta erabilera batzuen mugak berrikustea eskatzen da (Landarbasoko eremuko belardiak eta baso-landaketak, adibidez), eta hori justifikatzen duten balioak dituzten espazioetara egokitu beharko dira. Batzuk azalera handikoak ez badira ere, lurzoru horietan, kategoria horri dagokion hirigintza-araudia aplikatuta ziurrenik, nekazaritza-jarduera mugatuta geratuko litzateke.
 - Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzaren txostenaren 2.1 apartatuak hirigintza-araudia idazterakoan kontuan hartu beharreko gogoetak jasotzen ditu, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSan ezarritakoaren arabera.
- Nekazaritza-lurzoruaren okupazioa eta nekazaritza-sektorearen gaineko eraginaren ebaluazioa:
 - Plangintzak proposatutako eraldaketa-jarduera batzuek laborantza-lurzoruak okupatzea eragiten dute, eta, beraz, eragin handia izan dezakete nekazaritzako erabileretan eta ustategietan. Horren adibide dira: BPU-AL-01 Aduritz-Akular (Donostialdeko LPPko nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategiko bat dauka) eta BPU-MA-02 Sarroeta-Martutene pasealekua bizitegiarako plangintza-unitateak (BPU); JPU-AL-01 Txingurrigana, JPU-AÑ-01 Belartzagoia eta JPU-ZU-01 Bugati jardueretarako plangintza-unitateak (JPU); eta SOEL-AL-01 Landerro sistema orokorrerako erreserbako lurzorua (SOEL).
 - Beste alde batetik, nekazaritza-jarduerak zaildu edo eragozten dituzten erregulazioen kategoriek edo sistemek nekazaritza-potentziala duten lurzoruak nekazaritza-jardueran ezarri ditzaketen mugek ere nolabaiteko ziurgabetasuna sortzen dute. Ildo horretan, udalerriko nekazaritza-lurzoru eta -erabileren zati handi bat nekazaritza-jarduera muga dezaketen elementuen barnean zedarritzen dira (adibidez, Donostialdeko LPPko landa-parkeak, espazio libreen sistema orokorrak lurzoru urbanizazinean).
 - Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren 10.e artikuluan xedatutakoari jarraituz, Nekazaritza Arloko Afektazioaren Ebaluazio Protokoloa aplikatu beharko litzateke, kontuan hartuta, hala badagokio, oinarritzako elementu gisa, nekazaritza-lurren okupazioa ez ezik, baita plangintzan jasotako proposamenen eraginpean egon daitezkeen nekazaritza-ustategien gaineko eragina ere. Horretarako, oinarritzat hartu ahaliko da Nekazaritza eta Basozaintzako LPSan «Planak aplikatzeak eta obrak edo jarduerak burutzeak nekazaritza-sektorean duen eraginaren ebaluazioa»-ri buruz adierazitakoa. Garatu beharreko alternatibei buruzko erabakiak hartzean ebaluazio horren emaitzak erabiltzea gomendatzen da, nekazaritzako lurzoruaren eta erabileren gaineko eraginak minimizatuz, eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzaren txostenaren 2.2 apartatuan adierazitako jarraibideak eta orientabideak

kontuan hartuz, baita hiri-berroneratzearen, ekonomia-jardueretarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzorua, bizitegi-kuantifikazioaren, ekonomia zirkularraren eta abarren arloan indarrean dauden LAGetan jasotako beste batzuk ere.

- Bestalde, ebaluazio horren emaitzetan oinarrituta, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak zehaztuko dira, hala badagokio.
 - Nekazaritza-gaietan eskumena duen foru-organoaren txostena izan beharko da, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 16. artikuluan xedatzen den moduan.
 - Indarrean dauden LAGetan lurralde-plan partzial eta sektorialeiei buruz ezarritako baldintzetako batzuen ildoan, gomendatzen dugu hirigintza-plangintzak azter dezala landa- eta natura-eremuak hobetzeko ekintza positiboko programak eta neurriak eta banakako ebaluazio-sistemak barne hartzeko aukera, Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzaren txostenaren 2.2 apartatuan adierazitakoari jarraituz.
- Bestalde, GFAko Landa Garapeneko eta Lurralde Oreko Zerbitzuak adierazi duenez, kontuan hartu beharko da Nekazaritzaren Sektoreko Eragina Ebaluatze Protokoloa, inpaktua baloratzeko eta behar diren zuzenketa-neurriak proposatzeko.

Ingurumen-arriskuei dagokienez

- Donostiako udalerrian, uholde-arriskuarekin lotutako ur-ibilgu hauek identifikatu dira:
 - o Urumea; 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-orbanak, eta lehentasunezko fluxu-eremua. Ubide horri lotuta, uholde-arrisku handia izan dezakeen UAHE ES017-GIP-URU-01, Hernani/Astigarraga/Donostia eremua identifikatu da.
 - o Igara; 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-orbanak, eta lehentasunezko fluxu-eremua. Ubide horiei lotuta, uholde-arrisku handia izan dezakeen UAHE ES017-GIP-URU-02 Donostia eremua identifikatu da.
 - o Oria, Zubietan; 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-orbanak, eta lehentasunezko fluxu-eremua. Ubide horri lotuta, uholde-arrisku handia izan dezakeen UAHE ES017-GIP-16-2 Lasarte-Oria eremua identifikatu da.
- Jabari publiko hidraulikoaren, harekin lotutako zortasun- eta babes-eremuen eta uholde-arriskuko eremuen gainean izan litezkeen eraginei dagokienez, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan eta EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean xedatutakoa bete beharko da.
- Gainera, Donostiako udalerria, hiri-lurzorua zati bat barne hartuta, Itsas Jabari Publikoaren mugaketaren eraginpean dago. Horregatik, aplikagarriak dira Kostaldee buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legea eta urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuan onartutako Kostaldee buruzko Erregelamendu Orokorra, itsas-lehorreko jabari publikoko ondasunak eta horien legeko zortasunak definitzen dituena, eta, zehazki, itsaso eta lehorren arteko jabari publikoa babesteko zortasun-eremua.
- Urtegietako presak eta lepoak hausteari dagokionez, Añarbeko urtegiko eta Ibiurko urtegiko presak hausteak uholdeak eragingo lituzke udalerrian, Urumea ibaiaren arroan eta Oria ibaiaren arroan, hurrenez hurren. Beraz, hirigintza-plangintza kontuan hartu behar dira presak hautsiz gero sortuko liratekeen uraldiak, horrek eragina izan baitezake azterketaren eremuan.
- Udalerriko kostaldea olatuen eraginpean dago, batez ere Pasealeku Berrian. Baldintzatzaileak aurreikusteko eta neurriak hartzeko, baldintza ozeano-meteorologikoen zaintza- eta alerta-sarea dago.

- Eusko Jaurlaritzaren EAeko Uholdeak Prebenitzeko Plan Integralaren azterketa plubiometrikoren arabera (1992), Donostian, prezipitazio-isomaximoak 200 mm/egun eta 325 mm/egun artekoak dira 500 urteko errepikatze-denborarako. Horrek berekin dakar drainatze-obren diseinuan aintzat hartu beharko direla prezipitazio horiek, baita dagozkien itzulketa-emariak ere.
- Donostiako udalerria V-IV. intentsitateko eremuan kokatuta dago, 2006ko iraileko Arrisku Sismikoko Larrialdi Planaren arabera. Ondorioz, udalerria Arrisku Sismikoko Larrialdi Plana burutzetik salbuetsita dago, nekez gertatuko baita udalerriko eraikinak suntsituko dituen sismoa. Dena dela, sismoen aurkako Eraikuntza Araua hartuko da kontuan eraikuntza berrietarako: zati orokorra eta eraikuntza (NCSR-02) irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretuak onartua.
- Hirigintza-planifikazioari dagokionez, kontuan hartu behar dira Baso-suteetako Arriskuaren aurrean Larrialdietako Babes Zibileko Planaren Oinarrizko Gidalerroak (2013ko azaroaren 15ean Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez onartutakoa) jasotzen dituen mugak eta baldintzatzaileak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Baso-suteetarako Larrialdi Plan Berezia jasotzen direnak ere.

Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Baso-suteetarako Larrialdi Plan Bereziaren VI. eta VII. eranskinetan jasotzen diren baldintzatzaileak hartu behar dira kontuan. VI.aren arabera, Autobabeserako Plana egin beharra dago, nahitaez, basoko sute-arrisku handia duten inguruak edo hiriaren eta basoaren arteko elkarguneak erabiltzeko; VII.ean, berriz, kanpaldietarako instalazioei buruzko baldintzak ezartzen dira.

- Donostiari dagokionez, honako hauek dira salgai arriskutsuak eraman ditzaketen bide nagusiak:
 - Trenbidea: Adif Madril-Irun linea; arrisku ertaina du kartografiatuta.
 - Errepideak: AP-8, A-15, N-634, N1.
- Zaratari dagokionez, ETSk gogorarazi du kutsadura akustikoari buruzko araudian ezarritakoa bete behar dela, zehazki Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren II. tituluko («Zonakatzeko akustikoa eta zortasun akustikoa») II. kapitulua («Azpiegitura autonomikoen zortasun akustikoko eremuak»), eta III. tituluko II. kapituluko («Etorkizuneko hirigintza-garapena») 42. artikulua («Etorkizuneko hirigintza-garapenean dardarak ebaluatzea») eta 43. artikulua («Eraikuntza berrietarako eskakizun aplikagarriak»). Gaineratu duenez, Udalari dagokio, 213/2012 Dekretuak ezartzen duen eskumen-banaketaren arabera, azterketa akustikoak jasotako zuzenketa-neurriak behar bezala instalatu direla egiaztatzea, baita zuzenketa-neurrien eraginkortasuna zehazten duten kontrolak egitea ere.
- Era berean, ADIFek jakinarazi du inpaktu akustikoaren ebaluazioa barne hartu behar duela, trenbidea zarata-iturrietako bat dela kontuan hartzen duen eragin akustikoari buruzko azterlan bat barne. Horrela, HAPOn berrikuspen honen ondorioz egingo den zarataren azterketak CNOSSOS-EU metodoari jarraitu beharko dio, eta «Guía para la aplicación del método CNOSSOS-EU en la modelización del ruido producido por las circulaciones ferroviarias en las infraestructuras de ADIF y ADIF ALTA VELOCIDAD» gida erabili beharko da trenbide-zaratarako.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena.

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa), gutxienez, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da halaber, Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Aurrekoarekin bat etorriz, garatzen diren apartatuek honako eskema metodologiko hau bete beharko dute:

1. Proposatutako Planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Plangintza-alternatibak
2. Ingurumen-ezaugarrien zehaztapena
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-ondorioak
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da Azterketak alderdi hauetan sakondu behar duela, jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

6.1. Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik osatzen duten plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzakeen ondorio kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egiturarekin eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterketak barne hartuko du Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruzko laburpen txiki bat. Gainera, Azterketak labur-labur jaso beharko du nola hartu diren kontuan, Plana prestatzeko, ebazpen honen 2. apartatuko ingurumena babesteko helburuak eta jasagarritasun-printzipioak eta -irizpideak.

b. Hierarkian Plana baino gorago dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira Planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko Planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Hierarkian Planaren gainetik dauden plan edo programen onspen-egintzaren aipamena eta data aurkeztuko dira, eta plan edo programa horien ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin den ala ez zehaztuko da.

c. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkian Planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoa egiteko, baita Plana garatzeko beste tresna batzuk ere, ebaluatu beharreko planaren eremuan edo xederako aplikatzekoak direnak. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, eta zehaztu egingo da zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuko da.

d. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten plan eta programetan—beste eremu batzuetakoak: Europar Batasuna, Espainia, autonomia-erkidegoa edo tokiko esparrua—, baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Zehazki, eta beste batzuen artean, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2022-2027); bereziki, uholde-arriskuko eremuei lotutako zehaztapenak.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2022-2027).
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamendurako Lurzoru Publikoa sortzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- EAEko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala.
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala (izapidetzen).
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa.
- 14/2023 Legea, azaroaren 30ekoa, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzekoa.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzoruaren Kutsadura Prebenitzekoa eta Zuzentzekoa.
- 357/2013 Dekretua, ekainaren 4koa, Ulia (ES2120014) eta Jaizkibel (ES2120017) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen dituen (ES2120017), eta eremu horren kontserbazio-neurriak onartzen dituen.
- 355/2013 Dekretua, ekainaren 4koa, Aiako Harria Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duena (ES2120016), eta eremu horren kontserbazio-neurriak onartzen dituen.
- 241/1995 Dekretua, apirilaren 11koa, Aiako Harriaren area parke natural izendatu zuena.
- 1999ko azaroaren 10eko Foru Agindua, zeinaren bidez onartzen baita Hegoaldeko zuhaitz-igelaren (*Hyla meridionalis*) Kudeaketa Plana eta ematen baitira espezie hori babesteko arau osagarriak.
- 2004ko maiatzaren 12ko Foru Agindua, zeinaren bidez onartzen baita *Mustela lutreola* (Lineo, 1761) Bisoi Europarraren Kudeaketa Plana Gipuzkoako Lurralde Historikoan.
- 2004ko maiatzaren 12ko Foru Agindua, zeinaren bidez onartzen baita muturluze piriniotarraren, *Galemys pyrenaicus*, (E.Geoffroy, 1811) Kudeaketa Plana Gipuzkoako Lurralde Historikoan.
- Euskal Autonomia Erkidegoan Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Plana, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek sinatua.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu beharko du. Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat garatuko du azterlanak, eta haiek lotura izan beharko dute planak eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamenduaren aldean dakartzan aldaketekin edo xehakapenekin, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzaizkete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketak guztiak aintzat hartuta.

Indarrean dauden zehaztapenen eta berrikuspen honetan aurreikusitakoen arteko alderaketa aurkeztu beharko da. Xehetasunez deskribatuko da onartutako plangintzan definitutako egungo egoera, Planak sartzen dituen proposamen berriekin alderatuz: hirigintza-garapen berriak, eraikigarritasuna handitzea, bide berriak eraikitzea, erabilerak aldatzea eta abar.

Indarrean dagoen plangintzaren aldean, antolamendua aldatzen den esparru/sektore guztietarako, datu hauek eman beharko dira:

- Planoan kokatzea.
- Azalera.
- Indarrean dagoen plangintzaren eta planak sartutako proposamen berrien arteko alderaketa: hirigintza-garapen berriak, eraikigarritasuna handitzea, bide berriak eraikitzea edo beste ekintza batzuk.
- Nabarmen kaltetu daitezkeen eremuen ingurumen-ezaugarriak.

Informazio hori argi eta garbi identifikatu beharko da, eta, horretarako, adierazpen kartografiko batean oinarritzea gomendatzen da, islatutako informaziora egokitutako eskala batean.

Aurrerapenak Antondegi (968.638 m²), Aldatseta (293.115 m²) eta Lizarragako (zati batean desklasifikatuta: 8.863 m²) lurzoru urbanizagarriak (127 ha guztira) desklasifikatzea aurreikusten badu ere, 571 hektarea okupatzea planteatzen du (330,75 ha bizitegi-garapenetarako eta 240,21 ha ekonomia-jardueretarako). Lurzoru horietako asko ez daude artifizializatuta, nahiz eta indarreko plangintzan lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta egon. Proposamen horrek lurzoru-kontsumo handia eskatzen duenez, ingurumen-azterketa estrategikoak behar bezala justifikatu behar du HAPOn proposamena bat datorrela Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak 2021eko abuztuan emandako txostenean adierazitako irizpideekin.

Ildo horretan, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren 2024ko abenduko txostenaren arabera, IAEak bereziki aztertu eta behar bezala justifikatu beharko du natura-ondarean eragin handiena izango duten proposamenen ingurumen-bideragarritasuna: BPU-AL-A01 Aduritz-Akular, BPU-IB-03 Ilarra, BPU-IB-03 Sarroeta-Martuteneko pasealekua, BPU-LO-01 Urdintzu (Loiolako kuartelak), JPU-AÑ-01 Belartzagoia, JPU-AL-01 Txingurrigaña, JPU-ZU-01 Bugati eta JPU-IG-01 Igara.

Bestalde, lurzoru urbanizaezina antolatzeke proposamena definitu beharko da. Antolamendu-kategoriak eta gainjarritako baldintzatzaileak mugatu eta definitu beharko dira, bai eta horietako bakoitzean esleitutako erabilera-araubidea ere.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzaren txostenaren arabera, antolamendu-kategorien mugaketa kartografikoa berrikusiko da. Hala badagokio, babes bereziko kategoria gaur egungo errealitatera egokituko da, eta baso-landaketak eta belardiak kanpoan utziko dira Landarbasoko eremuan.

b. Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketan ezaugarriak buruzko aurreikuspen bat egingo da.

Azterketak identifikatu beharko ditu ingurumen-ebaluazio estrategikoa behar duten plan xehatuei dagozkien arloak eta proposamenak. Era berean, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten proiektuak —Planaren esparruan egindakoak— identifikatuko ditu; ildo horretan, garapen-baldintzatzaileak ezarriko dira, bai eta haiek garatzeko unean eraginak minimizatzeko jarraibideak ere.

c. Ingurumenean eragina izateko arriskua dakarten Planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienekotik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, neurria eta natura-baliabideen kontsumoa. Horrela deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, bai eta planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusi beharko da garapen-tresna edota -proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusi den erantsi beharko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko.

f. Epigrafe honetan bildutako informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraren erabilera adierazi beharko da, bai eta ingurumen-ondorio nabarmenak sortzeko arriskua duten Planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, eta, behintzat, honako hauek jasoko ditu: eremuaren mugaketa eta jarduketa guztien kokapena, PDF (georreferentziatuta) eta *shape* formatuetan, berrikuspen-lana errazteko.

6.1.3. Plangintza-alternatibak

a. Azaletik deskribatuko dira Plana formulatzeko prozesuan kontuan hartu diren alternatiba guztiak. Alternatiba horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izango dira: kokalekua, garapen teknikoa, garapen-denbora, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 alternatiba —esku ez hartzeko alternatiba— ere hartuko da kontuan, erreferentziatut hau hartuta: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izango duten bilakaera probablea Planaren proposamenak aplikatu ezean.

b. Alternatiba horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen alternatiba bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen eta 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuen eta 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzen artean.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.

Garapen berrien alternatibei dagokienez, beharrezkotzat jotzen da ingurumen-azterketa estrategikoak bereziki honako proposamen hauek aztertzea, natura-ondarean eragin handiena izan dezaketenak baitira:

- BPU-AL-A01 Aduritz-Akular: hartuko lukeen azalera handia eta nolabaiteko interes ekologikoa duten ibarbideetan izango lukeen eragina kontuan hartuta, Aduritz-Akularren garapen-proposamena ezestea gomendatzen da. Proposamenari eustea erabakiz gero, alde batetik, behar bezala justifikatu beharko da jasangarritasunaren aldetik, eta, bestetik, proposatutako mugaketa eta antolamendua berrikusi beharko dira, ibarbide horiei ahalik eta gutxien eragiten zaiela bermatzeko. Horretarako, IAEak xehetasunez aztertu beharko ditu honako alderdi hauek: horien osaera, bertan dauden espezieak, kontserbazio-egoera, azalerak, tokiko konektagarritasun ekologikoan duten eginkizuna, etab.
- BPU-IB-03 Ilarra: hego-ekialdeko muturrean baso misto atlantiko txiki bat dago, eta, proposatutako antolamenduaren arabera, espazio libreetarako erabiliko litzateke. Baldintza hori berariaz jaso beharko litzateke eremuaren araudi berezian, zuhaitz-masaren babesa bermatzeko.
- BPU-IB-03 Sarroeta-Martuteneko Pasealekua: hegoaldeko zatia Urola ibaiari lotutako haltzadi-zerrenda estu batek eta baratze eta fruta-arbolek okupatzen dute gaur egun, eta espazio libreetarako erabiliko da ia dena (eremuaren fitxaren arabera). Proposamena positibotzat jotzen da, erriberako basoaren egoera hobetzeko jarduketak egitea ahalbidetuko lukeelako. Nolanahi ere, alderdi hori eremuaren araudi berezian berariaz jasotzea gomendatzen da.
- BPU-LO-01 Urdintzu (Loiolako Kuartelak): harizti-masa handia du, eta, proposatutako antolamenduaren arabera, espazio libreetarako erabiliko litzateke batik bat; hala ere, bide berri bat eraikitzeak nabarmen eragingo lioke. IAEak eragin horren azterketa egin beharko du, eta bertan dauden espezieak, kontserbazio-egoera, eragindako azalera, tokiko konektagarritasun ekologikoan duen eginkizuna eta abar baloratu beharko ditu, aurreikusitako bidearen alternatibak

planteatzeko, eta, horrela, harizti-masaren gaineko eragina minimizatzeko. Nolanahi ere, eragindako baso-azalera 1:2 ratioan (eragindakoa: leheneratua) konpentsatu beharko da, natura-ondarearen galera garbia nulua dela ziurtatzeko.

- JPU-AÑ-01 Belartzagoia: indarrean dagoen «AÑ.13.1 Belartza Garaia» eremuari dagokio eta behin-behinean onartutako plan partzial bat du. Izapidetze-prozesuan, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak hainbat aldiz egin ditu jakinarazpenak, azkenekoz Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordean (Kodea: 3HI-028/23-N36), 2023ko uztaillean. Ildo horretan, HAPO berriak orduan planteatutakoari erantzun behar dio, eta konpentsazio-neurrien proiektu bat egin beharko da eremua garatu ahal izateko. Proiektu horretan argi eta garbi identifikatuko dira jarduketaren xede izango diren lurzatiak, horien egoera deskribatuko da, eta gauzatu beharreko jarduketak zehatz-mehatz zehaztuko.
- JPU-AL-01 Txingurrigaña: futbol-zelai bat eta harizti/baso misto handi bat daude gaur egun. Hiriguneek eta bide-azpiegiturek inguratzen dute. Proposatutako antolamenduaren arabera, eremuaren zatirik handiena espazio libre-eraketa erabiliko litzateke, eta, horri esker, zuhaitz-masaren zati handi bat babestu ahal izango litzateke. Edonola ere, alderdi hori berariaz jaso beharko litzateke eremuaren araudi berezian.
- JPU-ZU-01 Bugati: hariztiak hartzen du zati handi bat. IAEak zuhaitz-masaren azterketa xehatua egin beharko du, eta bertan dauden espezieak, kontserbazio-egoera, azalera, tokiko konektagarritasun ekologikoan duen eginkizuna eta abar baloratu beharko ditu, haren antolamenduak izango duen eragina minimizatzeko. Nolanahi ere, eragindako baso-azalera 1:2 ratioan (eragindakoa: leheneratua) konpentsatu beharko da, natura-ondarearen galera garbia nulua dela ziurtatzeko.
- JPU-IG-01 Igara: HAPOren Aurrerapenean aurreikusitako antolamendu-irizpideen artean, honako hauek nabarmendu behar dira: «Igarako erreka berreskuratzea, inguruan dauden lurzatiak berrantolatuta» eta «Igarako urtegiaren ingurua birnaturalizatzea eta hegoaldeko igelaren (*Hyla meridionalis*) ugalketarako leku gisa dituen ezaugarriak indartzea». Bi proposamenak positibotzat jo badira ere, HAPOren hurrengo faseetan hobeto zehaztuko dira garatu beharreko jarduerak, orduan balioetsi ahal izango baita horien egokitasuna. Edonola ere, urtegia birnaturalizatzeko aukera Gipuzkoako Foru Aldundiarekin adostu beharko da, hura baita hegoaldeko igelaren kudeaketa-planaz arduratzen den administrazioa.

Planteatutako proposamenak aplikatzean ekosistemen zerbitzuak nola mantentzen diren justifikatu beharko da, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta beste batzuek egindako «Guía práctica para la integración de los servicios de los ecosistemas en la formulación de planes y programas territoriales y urbanísticos»³ izenekoan jasotzen den bezala. Bereziki kezkarria da Aduritz-Akularren proposamenak dakarren lurzoruaren okupazio-azalera handia.

Ildo horretan, HAPOn planteatutako proposamenen ingurumen-bideragarritasuna justifikatu beharko du IAEak, bereziki lehen aipatutako garapenena.

d. Aztertutako alternatibak modu kartografikoan jasoko dira.

6.2. Ingurumenaren egoeraren ezaugarriak zehaztea

Azterketak deskribatu beharko du nolakoa den ingurumenaren uneko egoera (alderdi nagusiak azalduta) Planaren eragin-eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai haien elkarreraginaren ikuspuntutik, eta ingurumenaren uneko egoeraren ikuspegi integratua emango da.

³ <https://www.ehu.eus/cdsea/web/wp-content/uploads/2017/03/UCPDF202383.pdf>

Planaren eraginpeko eremutzat hartuko da, hura kokatzen den eremu osoaz gain, eremu horren ingurunerik hurbilena, baina soilik Planaren ekintzek ingurumen-ondorio nabarmenak izan ditzaketen gunetan.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den izenburua, urtea eta egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana osorik kontsultatzeko.

Azterketak ingurunearen aldagaiak bilduko ditu, eskala egokiko planoetan.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, ur-masak eta -puntuak, klima-faktoreak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Jasota utziko dira dauden natura-intereseko eta interes ekologikoko elementuak, hala nola ibaien ibilguak, mehatxatutako fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko habitatak, naturagune babestuak, hezeguneak, espezie autoktonoen basoak, landaredia, flora eta fauna autoktonoak, geologia-intereseko lekuak, korridore ekologikoak eta abar. Dauden elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira; halaber, interes-mailari, kalteberatasunari eta gaur egungo presioei eta arriskuei buruzko datuak —Plana gauzatzearen ondorioz areagotzeko arriskua dutenak— emango dira.

Horri dagokionez, aukeratutako garapen-alternatibak zer landaredi eragingo dion deskribatu beharko da, bereziki zuhaitz-masa autoktonoak eta intereseko landareak dituzten eremuetan. Landaredi mota bakoitzerako, honako hauek zehaztuko dira: azalera, kontserbazio-egoera eta funtzionalitate ekologikoa. Halaber, eremuan dauden landaredi aloktono inbaditzaileko espezie guztiak identifikatu beharko dira.

c. Paisaia. Kontuan hartuko dira paisaia-intereseko guneak, hala nola mugarri bisualak eta pertzepzioaren ikuspuntutik interesgarriak izan daitezkeen beste elementu batzuk. Hala badagokio, paisaia-katalogoak erabiliko dira, halakorik egonez gero.

d. Ingurumen-arriskuak eta arazoak. Arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak emango dira, kontuan hartuta, besteak beste, higadura-arriskua, lurpeko uren kutsadurarekiko kalteberatasuna, uholde-arriskua, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku.

Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Balizko kutsadura iturriak eta balizko jarduera kutsatzaileak jasan dituzten lurzoruak identifikatuko dira, eta natura-baliabideen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki urarena.

Planaren eremuko egoera akustikoaren gaur egungo gatazka akustikoak hautemateko eta etorkizunekoak aurreikusteko, informazio hau emango da:

- Zonakatze-mapa: Planaren esparruko eremu akustikoen mugaketa, baita mugakideena eta trantsizio-eremuena ere, hala badagokio.
- Soinu-iturrien analisisa
- KAHak betetzen direla egiaztatzea
- Azpiegituren zortasun akustikoak (hala badagokio)

Beste alde batetik, HAPOn berrikuspenak, ebazpen honetan adierazitako eremu batzuen sailkapen-aldaketez gain, eremuen antolamendu xehatua planteatzen du. Eragin akustikoari buruzko azterlan bat erantsi beharko zaio espedienteari. Azterlan horrek zarata-mapak eta ebaluazio akustikoak izango ditu, etorkizunean hirigintza-garapena aurreikusten den eremu akustikoen inpaktu akustiko globala aurreikusi ahal izateko. Eragin akustikoari buruzko azterlan horrek Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 37. artikuluan zehaztutako edukiak izan beharko ditu.

Hala dagokionean, aipatutako ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egoteko arriskua duten eremuko guneak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Antzemandako elementu bakoitzaren garrantzia, urrakortasuna, babes-tresna eta babes-maila adieraziko dira. Era berean, kultura-ondasunari kalifikazioa eta babes ematen dizkion arau-xedapenen arauak aipatzen dira.

Alde horretatik, kultura-ondasunen babes zehazteko, kontuan izango dira Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Departamentuak ezarritako baldintzatzaileak, ebazpen honen 5. apartatuan jasotakoak.

f. Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia, etab.), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitezkeen biztanleria eta abar.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko apartatua azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta labur-labur jasoko da zein diren Planeko jarduketaren ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren eremu, elementu edo egoeretan jarri beharko da arreta, bai eta eragina jasan dezaketen alderdietan ere, Planean jasota dauden aldaketaren ondorioz sortuko diren proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak kontuan hartuta.

Azterketak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak izan daitezkeen eremuak hauteman beharko ditu, proposamenak haietara egokitzeko.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da, haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko aukera emango duena. Apartatu hau idazteko, ebazpen honen 3. apartatua aipatu diren ingurumen-eremu garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan eremu horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

Kasu horretan, Planak planteatzen dituen jarduketaren garapena baldintzatzeko arriskua dakarten alderdiak jabari publiko hidraulikoaren eta kultura-ondarearen babesarekin, uholde-arriskuarekin, lurzoru kutsatuen kudeaketarekin, kalitate akustikoarekin eta intereseko landaredi eta faunaren presentziarekin lotutakoak dira, eta alderdi horiek azterketan aztertuko dira.

6.3. Proposatutako Planaren ingurumen-efektuak

a. Apartatu honetan, identifikatu eta baloratu beharko da zer efektu izan ditzaketen planean bilduriko ekintzek 6.2 apartatua deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta efektu horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta haien ezaugarriak deskribatzeko, azterketa bat egingo da jakiteko zer-nolako elkarreragina dagoen bertan aurreikusitako ekintzen eta eragina izateko arriskuan dauden ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, bai eta zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitezkeen jakiteko ere.

Ezaugarrien deskribapenean, zehatz eta argi adierazi beharko da zer motatako ondorioak dauden, honako hauek bereizita: albo-ondorioak, metaketakoak, ondorio sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerakoak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterako ondorioak.

Azterketaren 6.1.2.c apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak azalduko dira, eta espresuki aipatuko da apartatu horretan ekintzei esleitutako kodea.

Azterketak bereziki jorratu beharko ditu Planak sartutako jarduketa-proposamen berriekin eta Planak indarrean dagoen antolamenduan eragiten dituen aldaketekin lotutako ekintzen ingurumen-ondorioak. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketak eta aurreikusitako jarduketa berrien arteko konbinazioaren efektu metatzaile eta sinergikoak.

Hala dagokionean, zenbait ekintzaren konbinaziotik eratorritako ondorioak zehaztuko dira. Gainera, ingurumen-izaerako edozein ondorio bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean eragin kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Deskribatutako Planaren efektu bakoitzari, berriz, kode bat esleitu zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, horren erreferentzia behar bada.

Besteak beste, honako eragin hauek aztertuko dira:

- Ibai-ibilguetan eta jabari publiko hidraulikoaren babes-zortasuneko eremuetan izan dezakeen eragina ebaluatuko da, eta arlo horretako araudia betetzen dela justifikatuko da. Bereziki, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean adierazitakoa bete beharko da, aurreikusitako jarduketek ibaiaren ibilguarekiko gauzatu behar dituzten ubide-atzeratzei dagokienez.
- Planak uholde-arriskuan dituen ondorioak aztertuko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak, eta behar bezala justifikatuko du indarrean dagoen Plan Hidrologikoaren araudia betetzen dela erabilerei ezarritako mugei dagokienez, fluxu iraunkorreko alderdietan eta uholde-arriskuko zaintza-eremuetan.
- Horrez gain, aztertu egingo da ea Plana bateragarria den Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko 2022-2027 aldirako Planarekin, uholde-arrisku handia duten eremu hauetan: UAHE ES017-GIP-URU-01 Urumea eta Galtzaur ibai-ibilguetan (Urumea-2), ES017-GIP-URU-02 Igaran eta ES017-GIP-URU-03 itsasoaren eraginaren ondoriozko uholde-arriskua (Donostia-Kosta).
- Indusketetatik eta lur-mugimenduetatik eratorritako ondorioak aztertuko dira; bereziki, kutsatuta egon daitezkeen lekuak inbentariatuta dituzten eremuetan egiten direnean.
- Era berean, Planak proposatutako antolamenduak eremuan dagoen landaredi autoktonoan dituen ondorioen ezaugarriak zehaztu eta baloratuko dira; bereziki hostozabalen masa autoktonoan eta identifikatutako intereseko landaredian dituenak.
- Aztertuko da Planak zer inpaktu izan dezakeen eremuan identifikatutako fauna-talde guztietan, zuzenekoetan zein zeharkakoetan, haien habitatak aldatzeagatik. Interes berezia emango zaio hegoaldeko igelaren interes bereziko habitatari, muturluze piriniotarraren eta bisoi europarraren interes bereziko eremuei eta espezie nekrofagoak elikatzeke babes-eremuari, eta justifikatu beharko da Plana bateragarria dela espezie horien kudeaketa-planetan aurreikusitakoarekin.
- Planak proposatutako jarduerak eta gaur egun izapidetzen ari den EAEko Energia Berriztagarriaren LPSan aurreikusitakoa bateragarriak diren aztertuko da.

- Lurzoruaren okupazioak eta artifizializazioak eragindako inpaktua ebaluatuko da, eta gaur egun landa-izaerako eta izaera naturaleko lurzoruetan finkatuko diren proposamenak azpimarratuko dira batez ere: BPU-AL-A01 Aduritz-Akular, BPU-IB-03 Ilarra, BPU-IB-03 Sarroeta-Martuteneko pasealekua, BPU-LO-01 Urdintzu (Loiolako kuartelak), JPU-AÑ-01 Belartzagoia, JPU-AL-01 Txingurrigaña, JPU-ZU-01 Bugati eta JPU-IG-01 Igara.
- Nekazaritzako erabileren eta lurzoruen okupazioaren gaineko eragina aztertuko da. Ildo horretan, *a priori* honako hauek dira eragin gehien izan dezaketen proposamenak: BPU-AL-01 Aduritz-Akular (Donostialdeko LPPko nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategiko bat dago bertan), BPU-MA-02 Sarroeta-Martutene pasealekua, JPU-AL-01 Txingurrigaña, JPU-AÑ-01 Belartzagoia, JPU-ZU-01 Bugati eta SOEL-AL-01 Landerro sistema orokorrerako erreserbako lurzoru.
- Ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko da aurreikusi diren erabileretan zer mailatan beteko diren kalitate akustikoko helburuak (KAH), Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritakoak. HAPOko eremuaren zonakatze akustikoa egin beharko da, dekretu horren 20. artikuluan eta III. eranskinean zehaztutako eremu akustikoak aintzat hartuz, eta zonakatze hori erakusten duen plano txertatu beharko da hirigintzako dokumentuetan. Gainera, eremu akustiko baten barruan etorkizuneko hirigintza-garapen bat aurreikusten bada (hirigintza-kalifikazioaren aldaketak barne), eta Planak eremu horien antolamendu xehatua jasotzen badu, soinu-iturrien analisi bat egin beharko da, 20 urterako funtzionamendu-kondizioak barne, baita diseinu-aukeren azterketa bat eta, kasuak hala eskatzen badu, KAHak lortzeko beharrezko diren neurrien definizioa ere.
- Azterketaren bidez analizatuko da Plana bateragarria ote den kaltetu litezkeen ondare- eta kultura-intereseko elementuak izendatzearen ondoriozko babes-irizpideekin.

b. Identifikatu eta kodetutako ondorio bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko zer probabilitate duten, zenbateko iraupena eta maiztasuna izan dezaketen, eta itzulgarriak ote diren.
- Ondorioen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eragina jasateko arriskuan dagoen eremuaren balioa eta urrakortasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - . Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik badagoen.
 - . Aurkako ingurumen-baldintzarik badagoen, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitate-estandarrek edo muga-balioak gaindi ditzakeenik.
 - . Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, ondorioak kuantifikatuko dira, eta, horretarako, datu neurgarriak erabiliko dira; hain zuzen, Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzeak deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoeran eragingo dituen aldaketei buruzkoak. Hala badagokio, ondorio horiek iragartzean zer ziurgabetasun-maila dagoen adieraziko da.

c. Halaber, ahal den neurrian, ondorioak kartografikoki lokalizatuko dira, eta, orobat, plan edo programaren zer fasetan gerta daitezkeen zehazteko ahalegina egingo da.

d. Adieraziko da hautemandako efektu horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez Planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Horrela deskribatutako ingurumen-ondorioak hierarkizatuko dira, eta haien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4. Natura 2000 Sareko guneeetan izan daitekeen eraginari buruzko balorazioa

Planak jasotzen badu Natura 2000 Sareko eremuetan zuzenean nahiz zeharka nabarmen eragin dezakeen zehaztapen, neurri edo jarduketarik, bat etorrita Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46. artikuluan jasotzen denarekin, apartatu espezifiko bat sartuko da, Planak tokian izan ditzakeen ondorioak ebaluatzeko, kontuan hartuta eremua zaintzeko helburuak eta, bereziki, Batasunaren intereseko habitat eta espezieetan, haien kontserbazio-egoeran eta funtzionaltasunean eta Natura 2000 Sarearekiko koherentzian (elkarri lotutako ekosistemen sare gisa) zeharka nahiz zuzenean izan dezakeen erasana. Azterketa horretan, inpaktu horien identifikazioa, Natura 2000 Sareko prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak eta horien jarraipena jasoko dira.

Natura Sareko guneen gaineko eraginaren balorazioak barnean hartu behar ditu gune berean edo hurbileko lurraldeetan bi jarduketa edo gehiago egotearen zuzeneko ondorioak, zeharkakoak, metagarriak eta sinergikoak; bereziki, paisaiari, habitatei eta intereseko flora- eta fauna-espezieei eragindakoak. Azterketa horrek kontuan izan behar du, halaber, konektagarritasun ekologikoa, eta habitaten zatiketa eta espezieen desplazamendu eta mugimenduetan dauden oztopoak mugatu behar ditu.

Natura 2000 Sareko guneeetan izan daitekeen eragina baloratzeko eta Natura 2000 Sareari eragiten dion Plana garatzeko proiektuei buruzko zehaztapenak ezartzeko erreferentzia-dokumentu gisa, honako hauek nabarmendu daitezke, besteak beste:

- Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa. 2018. Natura 2000 Sarearen gaineko proiektuen ondorioen ebaluazio egokia Estatuko Administrazio Orokorren ingurumen-inpaktuen ebaluazio-dokumentuetan sartzeko beharrezkoa den informazioari buruzko gomendioak. Madril.
- Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioa. 2019. Natura 2000 Sareko ingurumen-inpaktua ebaluatzeko gida metodologikoa. Biodibertsitatearen eta Natura Ingurunearen Zuzendariordetza Nagusiak erabilitako irizpideak, Natura 2000 Sareko guneen osotasunari egindako kaltea zehazteko, Batasunaren intereseko habitatei erasateagatik. 2019ko urtarileko bertsioa.
- Europako Batzordea, 2020. Energia eolikoari buruzko proiektuei eta natura babesteari buruzko EBren legeriari buruzko orientazio-dokumentua. Brusela.

6.5. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu honetan, deskribatuko da zer neurri aurreikusi diren Azterketaren 6.3 apartatuan deskribatutako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko, eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu beharko dute ez dela ingurumen-efektu garrantzitsurik sortuko, Planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Helburu hauek izango dituzte: baliabide naturalak, natura- eta kultura-ondarea babestea; natura-arriskuak prebenitzea; eta atzemandako ingurumen-arazoen aurrean hobekuntzak egitea eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatuko dira, eta Azterketaren 6.3 apartatuan identifikatutako ondorioekin —prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin— lotuko dira. Berezi, neurri hauek zehaztuko dira, besteak beste, zeinak nahitaez aplikatu beharko baitira Plana onartzearen ondorioz garatzen diren plan edo proiektuetan:

- Uholde-arriskuari dagokionez, indarrean dagoen Plan Hidrologikoaren araudia bete beharko du Planak, erabilerei ezarritako mugei dagokienez, lurzoru urbanizatuko lehentasunezko fluxu-eremuan eta urak har dezakeen gainerako eremuan (43. eta 45. artikulua).
- Bestalde, bermatuko da betetzen direla EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean ezarritakoa eta dagokion administrazio hidraulikoaren nahitaezko baimenean jasotako baldintzak.
- Hirigintza-garapen berriek behar-beharrezkoa diren azaleretara mugatu beharko dute zoladura edo okupazio iragazgaitza, eta drainatze jasangarriko sistemak erabili beharko dituzte (zoladura iragazkorrak, andelak edo ekaitzetarako gailuak eta abarrak); lehendik zegoen egoeraren aldean jariatzea handitzen bada, hori konpentsa daitekeela edo garrantzirik gabekoa dela bermatuko dute horien bitartez. Sortutako jariatze-uren tratamendua aurreikusi beharko dute, halaber.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak xehetasun-maila nahikoarekin identifikatuko ditu obren faseko neurriak, lurrazaleko eta lurpeko uren kalitatea murriztea saihesteko, ibai-ibilguak kontuan hartuta.
- Berariazko neurriak, natura-ondarea eta konektagarritasun ekologikoa zaintzeko interes berezia duten udalerriko eremuak babestekoak.
- Lehentasuna emango zaio hirigintza-garapen berriak zuhaitz-masa autoktonorik edo lehentasunezko habitatik ez duten eremuetan kokatzeari. Halakorik egonez gero, espazio libreetara bideratzea lehenetsiko da.
- Intereseko landaredia kenduz gero (nolanahi ere, behar bezala justifikatu beharko da), konpentsazio-neurriak hartuko dira, eragindako eremuaren azalera berdina edo handiagoa duen lurraldeko/udalerriko eremu degradatu baten ingurumen-lehengoratzeari egiteko. Ezinbestekoa da gertatzen diren kapital naturalaren galerak konpentsatzea.

Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurri espezifikoak proposatu beharko dira, intereseko landarediaren gaineko eragina saihesteko edo arintzeko eta natura-ondarearen galera garbirik ez dagoela ziurtatzeko (zero balantzea, edo, bestela, aurreikusitako leheneratzeak eginez, positiboa).

- Plangintza xehatua garatzeko, eremua lehengoratzeko plan bat idatzi eta gauzatu beharko da, eta honako irizpide hauen arabera idatziko da:
 - o Zuhaitz eta zuhaixka autoktonoen multzo eta eraketa linealak ezartzeko ahalegina egingo da; ahal dela, horiek inguruan dagoen landaredia naturalarekin lotuz eta habitat naturalizatu bat birsortuz.
 - o Obren fasean intereseko landarediari ez eragiteko neurriak hartuko dira (balizak jartzea, etab.).
 - o Obrek aldi baterako eragindako eremuak eta esku-hartzerik egingo ez den espazio libreak birlandatuko dira, eremura egokitutako landaredi autoktonoa oinarri hartuta.
 - o Planaren eremuan egon daitezkeen flora aloktono inbaditzailearen aleak ezabatzeko jarraibideak eta zehaztapenak jasoko dira, eta eremuan eta ingurunean ez hedatzeko neurri egokiak hartuko dira. Horren harira, protokolo bat idatziko da inbasio-prozesuak sor ditzaketen landare-espezie aloktonoak kontrolatzeko eta desagerrarazteko (adibidez, *Cortaderia selloana*, *Fallopia japonica*, etab.).

- o Irizpideak zehaztuko dira Planaren ondoriozko hirigintza-garapenak paisaian integratzeko; horretarako, erabili beharreko espezieak eta birlandatu beharreko azalerak ezarriko dira, eta kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak egindako *Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburuan* jasotako gomendio eta neurriak.
 - Planaren eremuan dauden lurzoru kutsatuak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaiaren inguruan indarrean dagoen araudiaren arabera: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzkoa, eta 209/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duena.
 - Hala badagokio, nekazaritza-lurraren babesa bermatzeko neurri egokiak ezarri beharko dira, Nekazaritzaren Sektoreko Eragina Ebaluatzeko Protokoloaren emaitzekin bat etorritz.
 - Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaian indarrean dagoen araudiaren arabera.
 - Kalitate akustikoaren helburuak lortzeko behar diren neurriak ezarriko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera, eremu akustikoak eta aurreikusitako erabilerak kontuan hartuta.
 - Era berean, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenez, ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartuko ditu klima-aldaketa-eragiketa eragina arindu eta hartara egokitzeko neurriak. Xede horrekin, ihobek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: “Klima-aldaketa-eragiketa udal-programak egiteko gidaliburua. Udalsarea 21eko lan-koaderno” eta “Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketa-eragiketa egokitzeko”.
 - Azkenik, Klima-aldaketa-eragiketa eta trantsizio energetikoaren maiatzaren 20ko 7/2021 Legean ezarritakoarekin bat etorritz, Plana gauzatzeko proiektuak klima-aldaketa-eragiketa aurrean pixkanaka eta erresilientzia egokitzeko beharrezkoak diren neurriak kontuan hartuta diseinatu dira. Adibidez, klima-aldaketa-eragiketa egokitzeko eta «uharte termikoaren efektua» gutxitzeko asmoz, jarduketak ahalbidetzen badu, hiri-babesleku klimatiko gisa funtzionatu duten itzalguneak sortu eta ingurunea naturalizatzeko prozesuak sustatu dira.
- c. Adieraziko da Planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da Planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.
- d. Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko diseinatu diren etorkizuneko proiektuetan.
- e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio- eta zuzenketa-neurrien aurrekontua ere jasoko da, eta horrez gain, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona zein den adieraziko da.

6.6. Ingurumena zaintzeko programa

- a. Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, eta, hartan, Plana aplikatzeak dakartzen ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izango da:
- Planak ingurumenean izan ditzakeen efektu kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
 - Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, bai eta Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.

- Plana gauzatzeak eragindako ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko ez ezik, horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartzeko ere bai.
- Aztertzea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den Plana gauatzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Jarraipen-neurriak identifikatuko dira, eta neurri horiek Azterketaren 6.5 apartatuan jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriei jarraitu beharko diete.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren Azterketan, bai eta zer proposamen zehatz egiten den ere, kasu bakoitzean datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruz.

6.7. Ingurumen-laburpena

a. Ingurumen-alderdiak Planean nola txertatu diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren Azterketaren 6.1.1 apartatuan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen Planak etorkizunean ingurumenean eragin adierazgarriak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes-, zuzenketa- edo konpentsazio-neurriak planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela ondorio nabarmen horiek gertatzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik Plana garatzeko. Ondorio hori gauatzeko, Azterketaren gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.8. Laburpen ez-teknikoa

a. IAEak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonen erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.

b. Laburpen horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa erantsi beharko zaio, edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak izan beharko ditu.

7. Jendaurreko informazioko izapideak eta kontsultak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoa betetzeko, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du programaren lehenengo bertsioa, bai eta ingurumen-azterketa estrategikoa ere, 45 egunez gutxienez.

Era berean, organo sustatzaileak, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan xedatutakoaren ondoreetarako, gutxienez, irismen-dokumentu hau egiteko kontsultatu diren administrazio publiko ukituen eta interesdunen eskura jarriko ditu Planaren hasierako bertsioa eta ingurumen-azterketa estrategikoa, azter ditzaten. Entitate hauei egin zaie kontsulta:

- Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordetza. Osasuneko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Ihobe.

- URA-Uraren Euskal Agentzia.
- Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Lan Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Nekazaritzako eta Lurralde Oreka Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Kultura Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Kosta eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiaren Gipuzkoako Kosta Zerbitzua. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa.
- ADIF.
- Euskal Trenbide Sarea (ETS).
- Eguzkizaleak aisialdi-elkartea.
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan Elkarte.
- «Haritzalde» Parkeen Lagunak elkarte naturalista.
- Áncora Elkarte, Kultura Ondarearen Kontserbaziokoa.

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organoari, honako hauek barnean hartuta: plan edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, plan edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Bigarrena.– Donostiako Udalari ebazpen honen berri ematea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 24a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
Nicolás García-Borreguero.